




EHU



**LIBURUAK
ERDITUZ,
UNIBERTSOA
BIKOIZTU**

**Euskaraz
argitaratutako
liburuak
2016-2025**



**Euskal Herriko Unibertsitateko
Argitalpen Zerbitzua**

www.ehu.eus/argitalpenak

LIBURUAK ERDITUZ, UNIBERTSOA BIKOIZTU

**Euskaraz
argitaratutako
liburuak
2016-2024**



EHU

Giza Zientziak 5

ARTEA	5
FILOLOGIA	8
FILOSOFIA	17
HISTORIA	20
LITERATURA	25

Gizarte Zientziak 29

EKONOMIA	29
KOMUNIKAZIO ZIENTZIAK	31
PEDAGOGIA ETA HEZKUNTZA	33
PSIKOLOGIA	37
SOZIOLOGIA	38
ZUZENBIDEA	44

Bizitzaren Zientziak 49

OSASUN ZIENTZIAK	49
------------------	----

Zientzia Zehatzak eta Materiarenak 57

FISIKA ETA KIMIKA	57
GEOLOGIA	58

Zientzia eta Teknologia 59

ARKITEKTURA	59
INFORMATIKA	62
INGENIARITZA	63
MATEMATIKA	67

Euskal Literatura Saila 69


ZIO. Zientzia Irakurle Ororentzat 74

Limes 76

Legeak-Leyes 79

ARTEA


Oceanus Plasticus



Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) gure ozeanoen jasangarritasunarekin duen konpromisotik sortutako ekimena da Oceanus Plasticus. Diseinu grafikoko proiektu honetan Erdi Aroko tradizio kartografikoaren irudikapen sinbolikoak berrinterpretatzen dira, zeinetan itsasoko arriskuez ohartarazteko munstroak agertzen baitziren. Nolabait, liburu hau antzinako bestiario haiek zabaltzen zituzten ohartarazpen eta madarikazioen bertsio modernotzat hartu behar dugu.

Editoreak:	Leire Fernandez, Eduardo Herrera
ISBNa:	978-84-1319-644-2
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	128
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

GATEPACeko Ipar Taldea. Inguruabar politikoak



GATEPACeko euskal adarraren inguruabar politikoaren ikuspegi bat dakar batik bat liburu honek, inork ez baitio oraindaino taldearen eta garaiko gorabehera politikoaren arteko erlazioari heldu; ez, behintzat, beren-beregi eta taldea bere osoan hartuta. Harrigarria da. Izan ere, GATEPAC sortu eta amaitu bitarteko urteak asalduzkoak izan ziren, diktadura bat eraitsi berritan eratu eta matxinada militar baten osteko gerrarekin iraungi baitzen erakundea.

Egilea:	Lauren Etxepare Igñiz
ISBNa:	978-84-9082-756-7
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	240
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €
SAILA:	Arte Textos, 12. zenbakia


Animazioaren artea. Teoria eta praktika
El arte de la animación. Teoría y práctica



Esan daiteke prozesu zinematografikoaren deskribapen funtzionalak egiaztatzen duela irudi finkoen proiektzio sekuentzialei esker ikusten ditugula irudiak mugimenduan. Premisa simple –eta paradoxiko– hori abiapuntu esanguratsua izan ohi da mugimenduan dagoen irudiaren azalpen teoriko ugaritan. Era berean, ekarpen horietako askoren –zientifikoak, historikoak, filosofikoak, etab.– paradigma orokorra prozesu zinematografikoa izaten da.

Egileak:	Jesús M. Mateos Urbina, Begoña Vicario Calvo, Aitor Oñederra Agirre
ISBNa:	978-84-9082-782-6
Urtea:	2024
Tamaina:	15 x 21
Orrialdeak:	224
Formatua:	Papera
Salneurria:	16 €
Formatua:	PDF
Salneurria:	5 €

Joseph Hiriart, *Art Déco*-aren maisu. Arkitektura-bidaia Lapurditik Tunisera (1925-1936)



Tunisiako iparraldean kokatzen da Tunis. Kartago antzinaroko hiritik hurbil eta Siziliako itsasertzetik 150 bat itsas miliara. Mendebaldean, hango Medinaren bizkarretik, Sebkhia Sedjoui lakua dauka, eta ekialdetik, Bahira zingira, zeina bere muturrean irekitzen baita Goletako kanalaren bidez, Tunisko golkoarekin eta Mediterraneo itsasoarekin bat egiteko. Bi hiri hartzen ditu bere baitan: Medina arabiarra eta hemeretzigarren mendetik aurrera zingira-lurren gainean eraikiriko hiri europarra.

Egilea:	Lauren Etxepare Igiñiz
ISBNa:	978-84-1319-169-0
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	108
Formatua:	Papera
Salneurria:	10 €
SAILA:	Arte Textos, 8. zenbakia


Non dago Mikel Laboa?



Esku artean duzun saiakera honetan Mikel Laboaren (1934-2008) bizitza eta obra aztertzen da, sormenaren gainean dugun jakin-mina asetzeko. Sormenak gizartean duen eragina ikusteko. 1960ko hamarkadan Mikel Laboak eta Marisol Bastidak izan zuten desio batek emango dio hasiera irakurketa honi: «*Mundu libreago, zuzenago eta gizatiarrago baten eraikuntzari ekarpen txiki bat behintzat egitea*». Desio horrek mende erdia pasatu ondoren utzitako lorratza sentitzeko parada izango dugu.

Egilea:	Josune Albisu
ISBNa:	978-84-9082-944-8
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	260
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	4 €
BILDUMA:	Mikel Laboa Katedra bilduma, 2

Mikel Laboa. Omenaldia • Homenaje



UPV/EHuko Arte Ederren Fakultateko diseinu grafikoko ikasleek Mikel Laboaren omenez eginiko irudi-lanen laburpen bat jasotzen du liburu honek. Irudizko sorkari hauek artista donostiarraren lana eta irudia ikusteko, esateko eta imajinatzeko formetan parte hartzen dute. Adierazpen grafikook, katautorearen zenbait kanta zatiren ondoan jarrita, gure kultura-ondarearen leku partekatuen topaketa erakusten dute.

Egilea:	Zenbait egile
ISBNa:	978-84-9082-757-4
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	100
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
BILDUMA:	Mikel Laboa Katedra bilduma, 1


Euskal zinema bideo bilera. 40 urte zinea eta euskara bultzatzen



Duela gaur 40 urte (1978), Lekeitioko lau herritarren eskutik, Lekeitioko Zinema Bilerak hasi zen. Aitzakia honekin, UPV/EHUKo Arte Ederren Fakultatearen eta Bileraren aspaldiko elkarlanaren baitan, liburu honen argitalpena zuzendu dugu. Euskal zinema eta bideo amateurra, bertoko animazioa, bestelako bilerak eta jaialdiak, Lekeitiokoaren historia, sortzaileen gogoetak eta bilerarekin harremana duten bestelako gaiekin; honekin guztiarekin Lekeitioko Euskal Bideo eta Zinema Bilerari buruzko lehenengo liburua argitaratu da.

Egilea:	Zenbait egile
ISBNa:	978-84-9082-729-1
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	120
Formatua:	Papera
Salneurria:	8 €


Hezkuntza ekosozialeko hiztegia / Diccionario de educación ecosocial



Proiektu hau irakasle, aktibista, ikertzaile eta arlo ezberdinetako profesionalen arteko elkarlan komunitario baten emaitza da. Hasiera batean, dokumentuan sartzeko 150 termino baino gehiago aurkeztu ziren. Horrek, hiztegi baten ordez, entziklopedia bat suposatuko zukeen, eta ez zen gure ideia. Nolanahi ere, dokumentu honen parte ez diren horiek pixkanaka elikatuko dute Hezkuntza Ekosozialeko etorkizuneko web-entziklopedia proiektua.

Editorea:	José Manuel Gutiérrez Bastida
ISBNa:	978-84-1319-687-9
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	564
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €

Iparrorratza. Kalko eta huts ohikoenen saihesteko bidelaguna



Franko dira azken urteetan euskararen kalitatea hobetzeko beharrez sortu diren baliabideak eta eskuliburuak. Alabaina, gehien-gehienak Hego Euskal Herriko errealitateari eta beharrei dagozkie. Liburu hau Ipar Euskal Herriko euskarari egokituriko baliabideen eskasia, partez bederen, estaltzera dator. Hizkera zaindua du helmuga, euskara etxetik plazara hedatuz doan honetan esparru publiko guzietarako beharrezkoa den erregistro formala.

Egilea:	Céline Mounole Hiriat-Urruti
ISBNa:	978-84-9082-818-2
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	176
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

Euskararen iraganaz



Euskara zenbait alderditan hainbat barietate dibergentetan banatuta dagoela oinarritzkoa da, nabarmena, herrialdean zehar pixka bat ibili eta behatzaille motelenaren begia ere jotzen duena. Bestalde, gertakari horrek ez du azalpen berezirik behar. Edozein objektu alda daiteke, naturala zein kulturala izan, eta ez dago arrazoirik hizkuntza erakunde politikoak edo lurrazalaren erliebea baino egonkorragoa izan dadin. Alabaina, aldatzekotan, tokian-tokian hizkuntzak ez du zertan era berean eta norabide berean aldatu.

Egilea:	Koldo Mitxelena
Itzultzailea	Blanca Urgell Lázaro
ISBNa:	978-84-9082-914-1
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	156
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
BILDUMA:	Koldo Mitxelena Katedra, 8


Miren Azkarateri esker onez



Zintzotasuna, eta leialtasuna. Hitz horiek definitzen dute, beharbada, beste edozeinek baino hobeki, Miren Azkarate irakaslearen izaera. Berarekin lan egin dugunok badakigu zein zintzo eta leiala den. Beraren adiskide garenok ere badakigu ongi aski hori, zein zintzoa den, eta haren leialtasuna noraino ailegatzen den. Liburu honetan, Mirenen lankide eta adiskide izan garen batzuek gorazarre egin nahi izan diogu Mireni eta haren ibilbide akademiko oparoari.

Editorea:	David Lindemann
ISBNa:	978-84-1319-536-0
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	360
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan


Burundako hiztegia



Burunda eskualdea Nafarroako mendebalean dago, Arabaren eta Gipuzkoaren mugan. Sei herri dira: Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku. Bere kokagunea dela eta, hango hizkera hiru alderdietatik elikatu da: Nafarroatik, Arabatik eta Gipuzkoatik. Badira, gainera, han sortutako hitz bereziak eta baita han gordetakoak ere. Ondare lexiko horren zati esanguratsu bat bildu da hiztegi honetan: 3.941 sarrera dakartza, 1.446 azpisarrera, 75 esamolde eta 46 esaera eta esaera zahar.

Egilea:	Koldo Zuazo Zelaieta
ISBNa:	978-84-1319-415-8
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	378
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €


Mendebaleko euskara zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia



Liburu honek Mendebaleko Euskara Zahar deitu izan den egoera linguistikoa edo makrodialektoa du aztergai; hots, X. mendear geroztik Euskal Herriko mendebal zabalean (Bizkaian, Araban, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaleko zenbait ibarretan) ageri den eremu linguistiko zabala. Lanaren helburua Euskal Herriko mendebal zabaleko X.-XV. mendeen arteko zatiketa kronologikoak eta dinamika geolinguistikoak berreraikitzea da.

Egilea:	Eneko Zuloaga
ISBNa:	978-84-1319-472-1
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	338
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez



Ipar Euskal Herriko hizkuntza-berrikuntzen eta arkaismoen berri dakar liburu honek. Hondarreko mendeetan Ipar Euskal Herrian sortu diren berrikuntza anitzen berri dakar. Adierazten da ezaugarri berri horiek noiztik ezagutzen ditugun, zein testutan agertu diren lehen aldiz, eta, adierazten da gerora norat hedatu diren. Ipar Euskal Herriko jendeen ibilera historikoez bada atal bat, dialektologia dinamikoaren alderdi teoriko-metodologikoez beste bat eta laugarren atalean, geografia-hedadura zabaleko eta murriztagoko hizkuntza-ezaugarri berrien sailak bereizten dira.

Egilea:	Iñaki Camino Lertxundi
ISBNa:	978-84-1319-455-4
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	464
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria



Jatorrizko bertsioak *Linguistic diversity, minority languages and sustainable development* izenburua zuen, hiru hizkuntzatan idatzitako 12 lanek osatzen zuten (7 ingelesez, 4 gaztelaniaz eta bat frantsesez), eta egile bakoitzaren hizkuntza originala errespetatu zen, hizkuntza-aniztasuna nolabait irudikatzeko. Egileak hizkuntzen egoera, aniztasuna eta galera, eta haiek berreskuratzeko baldintzak aztertzen dituzten aditu ezagunak dira. Argitaraldi honetan, euskaratu egin dira euskaraz idatziak ez ziren ekarpen guztiak.

Editoreak:	Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Manel Pérez-Cauel Rodríguez
ISBNa:	978-84-1319-424-0
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	280
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1983)



Monografiko honek Joan Mari Torrealdaik landutako euskal liburuaren zentsura gaiari heltzen dio; zehazki, hark eginiko lanari jarraipena ematen zaio, osagarri, datu jasoketa sistematikoari esker lorturiko datuen azterketa sakona egin delarik. Liburukian, Alcalá de Henareseko Administrazioaren Artxibo Orokorrean (AGA) MHLI ikerketaldeak egindako datu-bilketa zehatza hartzen da abiapuntutzat. 545 espediente sistematikoki hustu ondotik, azterketa enpiriko-deskribatzailea egin da.

Editorea:	Ana Gandara Sorarrain
ISBNa:	978-84-1319-485-1
Urtea:	2022
Tamaina:	15 x 22,5
Orrialdeak:	312
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €
SAILA:	Filologia eta Hizkuntzalaritza, 24

Baigorri eta Ortaize ibarretako euskara



Saran (Lapurdi) bost urtetan (2013-2017) lanean aritu ondoren, Nafarroa Beherera joan da Koldo Zuazo eta, hango egonaldia­ren (2018-2020) emaitza aurkezten du liburu honetan. Nafarroa Behereko hego-mendebaleko Baigorri eta Ortaize ibarretako euskara izan du aztergai. Bi osagai ditu liburuak: gramatika eta hiztegia. Gramatikaren atalean hango euskararen egitura erakusten du, oinarritzko gertakariak. Hiztegia, berriz, oso zabala da: 4.625 sarrera, 934 azpisarrera, 75 esamolde eta 35 esaera eta esaera zahar dira denetara.

Egilea:	Koldo Zuazo Zelaieta
ISBNa:	978-84-1319-321-2
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	438
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Bi hizkuntza garun bakarrean. Euskal psikohizkuntzalaritzaren ekarpenak eta erronkak



Euskaldun guztiok bi hizkuntza (gutxienez) ikasi eta erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzan. Baina zer eragin dauka elebitasunak hizkuntzaren jaketakuntzan eta erabileran edo hizkuntzen patologietan? Nola lortzen dugu une oro erabili nahi dugun hizkuntza egokia hautatzea, edo hizkuntza batetik bestera nahi dugunean aldatzea? Eraginik ba al du gure hizkuntzaren erabileran gure bi hizkuntzek ezaugarri tipologiko bereizle nabariak izateak elkarren artean?

Editoreak:	Kepa Erdozia Uriarte, Mikel Santesteban Insausti, Adam Zawiszewski
ISBNa:	978-84-1319-362-5
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	184
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13 €

Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai



Euskara oinarri eta elebitasuna helburu. Hori da, hain zuzen, liburu honetan biltzen diren lanen abiapuntua eta xedea: euskara eleaniztasunaren erdigunean jartzea. Eleaniztasuna euskal gizarteko errealitate bihurtu da eta termino arrunt bilakatu zaigu azken urteotan. Besterik da eleaniztasun hori nola irudikatzen den, hizkuntzen arteko indar desorekak kontuan hartzen diren eta zein helbururekin sustatzen den. Izan ere, garai batean hitzun «on» bakartzat jotzen zen hitzun elebakarra.

Editoreak:	L. Diaz de Gereñu, I. Manterola, I. M. Garcia Azkoaga
ISBNa:	978-84-1319-342-7
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	304
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan


Oinarrizko Hiztegia. Latina - Euskara



- 19.000 sarrera.
- Sarreretan bokal luzeak adierazita.
- Erabilera-adibide ugari, itzulpen eredugarriekin.
- Perfektu eta partizipio perfektu zailenen zerrenda.
- 1.600 izen berezi: pertsona-izenak, leku-izenak eta pertsonaia mitologikoak.
- Gramatika-laburpen zehatza, egitura gramatikal nagusien itzulpen eredugarriekin.

Egilea:	Zenbait egile
ISBNa:	978-84-1319-134-8
Urtea:	2020
Tamaina:	11 x 17,5
Orrialdeak:	798
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €


Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia



2004ko otsailaren 18an aurkeztu zen jendaurrean Lazarraga Eskuizkribua eta harro handia sortu zuen filologo, literaturzale eta euskaltzaleen artean, Arabako euskaraz idatzirikoa lehen lekukotasun luzea zelako (xvi. mendearan amaiera edo xvii. mendearan hasierakoa). Autoreek berehala ekin zioten talde-lanari, eskuizkribuaren azterketa eta edizio fidagarri, arduratsu eta zintzoa aurkezteko helburuarekin. Hamabost-hamasei urte hauetako lanaren emaitza da liburu hau.

Egileak:	Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole, Blanca Urgell
ISBNa:	978-84-1319-161-4
Urtea:	2020
Tamaina:	15 x 22,5
Orrialdeak:	396
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €
SAILA:	Filologia eta Hizkuntzalaritza, 22

Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa II. Testua



Argitalpena bi liburukitan antolatuturik dago. Lehenengoan, Joan Perez Lazarragakoren (c. 1547-1605) bizitza eta idazlanei buruzko sarreraren ondoren, Lazarraga Eskuizkribuaren gramatikaren azterketa sakona eta hiztegi-adizkitegia argitaratu dira. Bigarren liburukian, Lazarraga Eskuizkribuko testu osoaren edizioa dator: ezkerreko orrialdeetan, edizio filologikoa eta, eskuinekoetan, testu hori berori, ezkerrekoaren parez pare, baina euskarazko gaurko grafiaara aldatuturik.

Egileak:	Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole, Blanca Urgell
ISBNa:	978-84-1319-162-1
Urtea:	2020
Tamaina:	15 x 22,5
Orrialdeak:	704
Formatua:	Papera
Salneurria:	35 €
SAILA:	Filologia eta Hizkuntzalaritza, 2


Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre



Zuazok lan eskerga eginez jaso ditu han-hemenka euskararen batasunak oraindik ere beharrezkoak dituen sendabelarrak; eta behar itzela egin du euskalkiak aztertzen, batez ere mugako hizkerak miatzen eta orain arte batu eta arakatu barik zeuden hainbat hizkera-molde ezkutu bistaratzen. Koldo Zuazok urteetan Euskal Herriko zoko-bazterretan barrena zorrotz jorratu dituen gaietan ekarpen batzuk ekarri ditugu bere lankide eta adiskideok orrialde hauetara.

Editoreak:	Iñaki Camino Lerchundi, Xabier Artiagoitia Beaskoetxea, Irantzu Epelde Cendoya, Koldo Ulibarri Orueta
ISBNa:	978-84-1319-266-6
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	778
Formatua:	Papera
Salneurria:	32 €


Izen-sintagmaren antolaera



Hitz egiterakoan, lehenik eta behin aipatu behar ditugu gure errealtatea osatzen duten zerak, konkretuak nahiz abstraktuak: izen bat eman, alegia, zeroi. Gero, hala izendaturiko zer mota bakoitzetik, zenbat aiez ari garen jakinarazi behar izaten dugu, hots, dena delakoa kuantifikatu: bat, zenbait, asko. Bai eta espazioan eta denboran kokaturik erreferente jakin bat zehaztu ere: (zer horietatik zein?: edozein, ni/hau, zu/hori, hura, hor ikusten dudana). Bestalde, kalifikatu ere egin dezakegu dena delakoa, hots, zer ezaugarri egozten dizkiogun adierazi.

Egilea:	Juan Garzia Garmendia
ISBNa:	978-84-1319-092-1
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	128
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


Euskalkien sailkapen berria



Esku artean duzun lan hau ez da euskalkien sailkapen bat gehiago. Izan ere, liburu honek errotik aldatzen du euskalkiak eta hizkerak sailkatzeko metodologia. Metodologia eta prozedura berriak azken bost urteotan garatutako ikerketen bidez landu dira, eta lortu diren emaitzen dibulgazio-lana duzu argitalpen hau. Hizkuntzalarientzat ez eze euskalkiak maite eta tokian tokiko hizkeren zale den irakurle ororentzat egina da liburua.

Egileak:	Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea Txipi, Xarles Videgain
ISBNa:	978-84-1319-096-9
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	184
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


Sarako euskara



Erabat ezezaguna genuen Lapurdiko mendebaleko euskara eta eremu horretako herri bat hartu du Koldo Zuazok aztergai: Sara. Esangura bereziko herria euskararen historian. 1617an Sarako euskarari idatzi zuen Esteva Materrak *Doctrina Christiana* liburua, eta harekin hasi zen Lapurdiko literaturaren gorakada. 1643an agertu zen *Gero*, Sarako erretore zen Axularrek idatzia. Liburu horiei esker, ospea eta izen ona lortu zuen Sarako euskarak.

Egilea:	Koldo Zuazo Zelaieta
ISBNa:	978-84-9082-821-2
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	326
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

Axular eta Gero Patxi Salaberriren pasio



Patxi Salaberrik bere lan-ibilbidea amaitu zuenean, lankide eta lankide ohi batzuek ondo merezia zuen omenezko zerbait argitaratzeaz jardun genuen. Eta beste asmo askoren artean, hauxe gailendu zen: Patxiren arlo horretako ekarpenaren garrantziaz jabeturik, *Geroren* inguruan aldizkari- nahiz liburu-artikuluetan egin duen ekoizpena liburu batean berrargitaratzea erabaki genuen. Ezaguna da euskal literatura klasikoari eta, zehatzago, Axularren *Geroren* ekarriari Patxi Salaberrik dion zaletasuna.

Editoreak:	Gotzon Aurrekoetxea Olabbarri, Jesus Mari Makazaga Eizagirre, José Luis Ormaetxea Lasaga Txipi
ISBNa:	978-84-9082-873-1
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	920
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Oinarrizko kontzeptuak eta ereduak interpreteen eta itzultzaileen trebakuntzarako



Liburua mundu osoko itzulpengintza eta interpretazioko trebakuntza-programetan erabiltzen da, eta Itzulpengintzako Ikasketen nazioarteko komunitatean maiz aipatzen da. Itzulpengintza eta interpretazio profesionalaren printzipioak eta arlo horretan maiz agertzen diren arazoak eta zailtasunak ulertzeko behar diren oinarri kontzeptualak eskaintzen ditu.

Egilea:	Daniel Gile
ISBNa:	978-84-9082-937-0
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	284
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €


Ekonomia arloko itzulpengintza. Frantsesa-euskara



Gida hau Ekonomia arloko itzulpengintzarako hastapen metodo bat da, B edo C hizkuntza frantsesa daukaten Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleek alderantzizko itzulpena eta, batik bat, itzulpen zuzena landu ditzaten. Argitalpen frantses eta frankofono espezializatuetatik aukeratu ditugu hainbat kazetaritza-artikulu zein testu teoriko, adibideok ikasleari itzulpen tekniko mota honen zailtasunak ezagutzen eta gainditzen lagundu diezaioten.

Egileak:	Inmaculada Barrena, Juan Ibeas, Lydia Vázquez
ISBNa:	978-84-9082-930-1
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	156
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


Bariazioa esaldien intonazioan



Aurrerantzean egiteko geratzen den bidea luzea eta malkartsua bada ere, lan honetan oinarritzko esaldien intonazioaren azterketa burutu da. Horretarako Euskal Herriko zazpi probintzietako informanteen datuak jaso dira. Datuok aztertzerakoan egitura prosodikoaren hierarkia (Nespor eta Vogel, 1986) eta eredu metriko-autosegmentala (Pierrehumbert, Beckman eta Ladd, 2000) kontuan izan dira.

Editoreak:	Aintzane Etxebarria Lejarreta, Naia Eguskiza Sánchez
ISBNa:	978-84-9082-793-2
Urtea:	2018
Tamaina:	15 x 22,5
Orrialdeak:	306
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
SAILA:	Filologia eta Hizkuntzalaritza, 20


Esaldiak josten



Liburu hau *Esaldiaren antolaera: funtzio-informatiboak gako* liburuari segida da. Esaldiaren esparruan aritu ginen han, eta egokia zen hortik abiatzea, esaldia izanik diskurtsoaren unitate oinarritzkoa. Oraingo honetan, hortik aurrerako –hortik gorako– urratsari ekingo diogu: ea esaldiak diren unitate prosodiko, sintaktiko eta semantiko nagusi horiek nola konbinatzen diren testua osatuz joateko, hots, nola josten den esaldiz esaldi diskurtsoaren haria.

Egilea:	Juan Garzia Garmendia
ISBNa:	978-84-9082-731-4
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	104
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara



Gotzon Aurrekoetxea eta haren lana omentzen dira liburu honen bidez. Omenduaren fruitu dira liburuan biltzen direnak, urte luze hauetan zehar hark jositako sarea; hizkuntzalaritzaz, dialektologiaz, hizkuntzaren aldakortasunaz, dialektometriz, dialektologia kuantitatiboaz eta beste hainbat gairi buruz adituak diren ikertzaileen ekarriak biltzen ditu lan honek.

Editoreak:	Aitor Iglesias Chaves, Ariane Ensunza Aldamizetxebarria
ISBNa:	978-84-9082-582-2
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	336
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €

Itzulpengintza Literarioaren Gida. Frantsesa/Euskara



Gida honek alderantzizko itzulpen literarioaren eta batez ere zuzenekoaren hastapenetarako baliabide pribilegiatu bat eskaintzen die Itzulpengintza eta Interpretazioa graduko ikasleei, B edo C hizkuntza frantsesa daukatenei, hain zuzen. Helburu horrekin, bai gaur egungo testuak, bai klasiko enblematikoak proposatzen dira, Frantziako zein, oro har, frantsesezko literaturatik.

Egileak:	Juan Manuel Ibeas Altamira, Marina Ruiz, Lydia Vázquez, Arrate Aldama
ISBNa:	978-84-9082-733-8
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	920
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €

Euskal gizabidearen emarian



Kulturak bizitzaren alde egiten duen ekimen eta indar guztia kontuan harturik ere, Mendebaldeko ongizatea teknozientziaren garapenean, ekonomiaren hazkundean eta gozamen hutsaren bilaketan oinarritzen denez, zentzuaren mailako galdera-erantzunen eta pertsonagintzarako balio-sistema moral eta espiritualen lanketa erabateko deskuidoa dago. Are gehiago gurean, Euskal Herrian, zapalketaren eraginez, besteak beste, tradizio propioa ezagutu, zaindu eta lantzeko zailtasuna izanik.

Egileak:	Jon Mentxakatorre Odriozola, Andoni Eizagirre Eizagirre
ISBNa:	978-84-1319-677-0
Urtea:	2025
Tamaina:	170 x 240
Orrialdeak:	152
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

XX. mendeko euskal pentsamendua Joxe Azurmendiren talaiatik



Joxe Azurmendiren obra unibertso literario zabal eta aberatsa da, euskalduna eta europarra, euskalduna izanik unibertsala, eta bertan hainbat arlo eta sail zedarri litezke. Hein batean aztertua dago; izan ere, pentsalariari eskainitako «Euskal pentsamenduaren ur-jauzia» kongresua egin zen Donostiako San Telmo Museoa 2019ko abenduan, eta, sei sailetan banaturik (Kultura, nazioa, estatua; Gizaberea; Gogoeta etikoak; Pentsamendu soziala; Kooperatibismoa; Hizkuntza eta pentsamendua), ...

Egilea:	Pako Sudupe Elortza
ISBNa:	978-84-9860-927-1
Urtea:	2025
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	324
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
SAILA:	Filosofia saila, 16

Kant. Zeru izartsua eta lege morala



Inork ez du Immanuel Kantek bezain ongi adierazi munduaren aurrean gizakiok sentitzen dugun lilura: gora begiratu eta gure gainean zeru izartsua ikusteak, eta sakonean behatu eta gure baitan lege morala sumatzeak «mirespena eta begirunea» eragiten digute. Izar distiratsuek ñir-ñir egiten dute zerualdean, eta lege morala gutako bakoitzaren baitan dago. Argizagi ñirñirkari horien distira ulertzeko irrikak natur zientziak sortu ditu, eta gure izaera moralak filosofiara, etikara eta estetikara eraman gaitu.

Egilea:	Jon Sudupe Martija
ISBNa:	978-84-9082-831-1
Urtea:	2024
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	282
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
SAILA:	Filosofia saila, 15

Adimen artifiziala: filosofia eta teknologiaren bilgune



Adimen artifizialaren eta filosofiaren arteko harremana eta solasaldi kritikoak ezinbestekoak dira. Erro paradigmatico edo teknikari buruzko filosofiak adimen artifizialaren gaineko gogoeta egin beharra dauka, teknofilia-teknofobiaren arteko kulunka eguneratuz zein teknologia autonomoen eta digitalizazio unibertsalaren tokia aztertuz. Liburu honetan, eremu horietan ekarpen handikoak izan diren zenbait pentsalariren bidea azaltzen da.

Editoreak:	Jon Mentxakatorre Odriozola, Aitzol Astigarraga Pagoaga
ISBNa:	978-84-1319-564-3
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	138
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	11,70 €


Bidez bide hausnarrean



Lan honetan hiru zati edo atal bereiz daitezke. Lehenengoan, zenbait auzi filosofiko jorratzen dira. Fokupean jartzen dira zenbait artelaren edo fikzio-lanen ustezko izaera immorala, narrazio historikoen izaera edo jarrera negazionistaren eta kritikoaren arteko harremana. Bigarren zatian egileak aurkezten ditu pentsamendu feministak egin dituen zenbait ekarpen. Hirugarren zatian, egilearengan eragina izan duten egile batzuen ideiak eta pentsamendua aurkezten ditu: D. Hume, B. Russell eta S. Haack, besteak beste.

Egilea:	Agustín Arrieta Urtizberea
ISBNa:	978-84-1319-545-2
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	220
Formatua:	Papera
Salneurria:	20,50 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13,30 €


Lucyregandik Kantengana. Giza animaliairen bidaia miragarria



Eboluzio luze baten emaitza gara, mundu biziaren parte, hautespen naturalaren ondorio. Gure geneak, gure garuna, gure biologia gara; baina baita gure ingurunea, gure hezkuntza eta gure kultura ere. Animalia espezie berezia gara: ez aingeru zerutiari, ez abere huts, ez otso, ez automata. Biologiak eta kulturak egin gaituzte. Gizakiok, bada, bi erresumatako herritarrek gara, bi mundutako kideak, mundu naturalekoak eta mundu moralekoak. Animaliatasunaz gain, gizatasuna ere badugu.

Egilea:	Jon Sudupe Martija
ISBNa:	978-84-1319-482-0
Urtea:	2022
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	264
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
SAILA:	Filosofia saila, 14

Gogoeta-bide irekiak. Fikzio, egia, balio eta hezkuntzari buruzko saiakera filosofiko bat



Gogoeta-bide hauek alderdi guztietatik irekiak dira. Alde batetik, zitekeena zen aukeratutako gai batzuk ez egotea eta beste gai batzuk sartzea. Azken unean bakarren bat sartu da zerrendan eta bakarren bat atera da handik. Beste aldetik, gai zerrenda irekia izateaz gainera, gai bakoitzaren jorrapena ere irekia da. Egilea batzuetan eroso samar sentitu da bidea egiten, gaia gertukoagotzat zeukalako. Besteetan, ordea, kostata egin du aurrera.

Egilea:	Agustín Arrieta Urtizberea
ISBNa:	978-84-1319-090-7
Urtea:	2019
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	288
Formatua:	Papera
Salneurria:	16 €
SAILA:	Filosofia saila, 12


Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria



Wilhelm von Humboldt prusiar humanista, politikari eta hizkuntzalari ezagunak giza eta gizarte zientzien inguruko obra zabal bat du eta, horren baitan, leku esanguratsu bat betetzen dute euskal nazioari eta hizkuntzari buruzko haren saiakera eta ikerketek. Euskal Herria bisitatzen duenetik, 1799an eta 1801ean, behin eta berriz heltzen dio euskal gaiari —bereziki hurrengo hogeit urteetan— baina horren emaitza ez da ageriko corpus itxi bat.

Egilea:	Iñaki Zabaleta Gorrotxategi
ISBNa:	978-84-9082-765-9
Urtea:	2017
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	348
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	7 €
SAILA:	Filosofia saila, 10

Kultura Gerra Zibilean (1936-1939)



Gerra Zibilak erabateko etena ekarri zuen euskal kulturara. Dena dela, gerra-garaia ez zen basamortua izan ikuspuntu kulturaletik. Oso baldintza txarretan bazen ere, ekimen eta estrategia kulturalak bultzatu ziren, artelanak sortu ziren, literatura egin zen, kulturari buruzko erabakiak hartu ziren, eta egitasmo kultural eta artistikoak jarri ziren martxan. Horrez gain, kulturaren inguruko eztabaidak ere izan ziren. Artisten eta intelektualen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko loturak ere indartu zituen gerrak.

Egileak:	Patxi Juaristi Larrinaga, Beatriz Zabalondo Loidi
ISBNa:	978-84-1319-696-1
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	500
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €

Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera



Markina-Xemeingo Bekobenta eskolak mende erdi bete duela ospatzeko egin da *Markina-Xemeingo Hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera* liburua. Beraz, lanaren lehen helburua izan da Bekobenta eskolak 50 urtez egin duen ibilbidea aztertzea. Baina, horrekin batera, hezkuntza publikoak XIX. mendetik gaur egunera arte Markina-Xemeinen izan duen bilakaera ere aztertzen da liburuan.

Egileak:	Zenbaiten artean
ISBNa:	978-84-1319-632-9
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	412
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €


Bidasoaldeko Alardeen gatazkaren historia. Tradizioa eta feminismoa (1993-2008)



1996an Hondarribiko eta Irungo Alardeen konfliktoak eztanda egin zuen, emakume batzuk Alardeetan soldaduz jantzita sartu zirenean. Emakume horiek herrietako jaietan gizonen pareko parte-hartze aktiboa izan nahi zuten, eta hori gauatzeko ahaleginek genero ordena zalantzan jarri zuten. Genero ordena zalantzan jartzean, ordena sozial eta politikoa arriskuan geratu zen, eta horren aurrean urte luzez iraungo zuen erreakzioa sortu zen, apurtutako ordena berrezarri nahian.

Egilea:	Ilargi Bengoetxea Gartzia
ISBNa:	978-84-9082-274-6
Urtea:	2024
Tamaina:	16 x 22,5
Orrialdeak:	330
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
SERIEA:	Historia Garaikidea, 67


Gregorio Múgica. La llama vasquista
Gregorio Mujika. Euskaltzaletasunaren garra



Liburu honetan biltzen dira, antologia gisa, Gregorio Mujika euskaltzaleak (1882-1931) argitara emandako hainbat testu, XX. mendearen hasieratik 1930. urtean artean gazte zelarik eta 50 urte bete gabe hil arte. Gregorio Mujikak ez zuen adskripzio partidistarik, eta neutraltasun politiko horretatik abiatuta, hainbat gai ukitu zituen eta pentsaera oso artikulatu bat sortu zuen, betiere zentzu instituzional altuan eraikia.

Egilea:	Javier Díaz Noci
ISBNa:	978-84-1319-377-9
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	304
Formatua:	Papera
Salneurria:	23 €
BILDUMA:	Clásicos del Pensamiento Político y Social del País Vasco, 20


Nekazariak eta jaunak Erdi Aroan. VIII. mendetik XV.era bitartean



Lan honek lur-jabeen eta ekoizleen arteko harremanak aurkezten ditu, karolingiarren arotik hasi, eta XIV. eta XV. mendeetako nekazari-errebolta handien garaira iritsi bitarteko aldi luzean. Mendealdeko gizartearen eskura zeuden baliabideen ugaritzearen koiuntura eta aberastasun orokorraren handitzea, neurri batean, ekoizpena antolatzeko eta langileak kontrolatzeko egitura original jakin batzuetan oinarritu zen, eta egitura horiek jaurgio edo jaun-erregimen hitzen bitartez izendatzen ditugu.

Egilea:	Laurent Feller
ISBNa:	978-84-1319-359-5
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	372
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

Langabezia eta herri-lanak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Bigarren Errepublikan (1931-1937)



Herri-lanak, administrazio-erakunde batek beharrian publikoak asetzeko sustatutako obratzat defini daitezke. 1929ko krakari aurre egiteko neurrien artean obra publikoak eta haiek bultzatzeko diru laguntzak erabili ziren. Beste lurralde batzuetan bezala, lan-krisiari aurre egiteko erabili ziren Espainian, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta hiru probintzia horien kasuan, batez ere aldundiek bultzatu zituzten.

Egilea:	Iñaki Etxaniz Tesouro
ISBNa:	978-84-1319-373-1
Urtea:	2021
Tamaina:	16 x 22,5
Orrialdeak:	212
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
SERIEA:	Historia Garaikidea, 63


Bertsolaritzaren historia soziala. Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)



Bertsolaritzak prentsa historikoa, irratian, zineman, telebistan nahiz Interneten izandako presentziaren bilketa eta azterketa hartu da abiapuntutzat. Bertso-munduko eragiletzaren zortzi belaunaldiren biografiak eta ekarpenak ere harikatu dira kontakizunean. Eta hau guztia Europan kultura popularrak izandako bilakaeraren testuinguruan kokatu da. Kultur bilakaera erabat singularraren errepasso zabala da azken emaitza, ahots subalternoaren bizi indarraren testigantza eder bat.

Egilea:	Antxoka Agirre Maiora
ISBNa:	978-84-9860-696-6
Urtea:	2021
Tamaina:	16 x 23
Orrialdeak:	752
Formatua:	Papera
Salneurria:	25 €


Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako finantza publikoak eta Ekonomia Ituna 1929ko krisi ekonomikoaren garaian (1925-1936)



1929ko udazkenean, Wall Street-en epizentroatik izan zuen «crash» ekonomikoaren metxa ziztu bizian hedatu zen mundu-mailako ekonomiara, eta hasiera eman zion kapitalismoaren historian aitzindaria izan zen krisi ekonomiko latz bati. 2008ko krisi ekonomikoaren eskutik, 1929ko krisiaren gaineko interesa eta gaurkotasuna berpiztu egin da azken hamarkadan, arlo politikoan zein akademikoan. Liburu hau, 2008az geroztik garatzen ari den 1929ko krisiaren gaineko berrikusketa-prozesuaren barnean kokatzen da.

Egilea:	Mikel Erkoreka
ISBNa:	978-84-1319-255-0
Urtea:	2020
Tamaina:	14,5 x 22,5
Orrialdeak:	236
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
SERIEA:	Historia Garaikidea, 61

Arkeologiako eskuliburua



Liburu hau baliabide paregabea da arkeologiako ikasleentzat, eta hainbat mailatan erabiltzeko modukoa da: institutuak, unibertsitateak, helduentzako hezkuntzan, dibulgazioan... Gaur egungo gaiak eta adibide orokorrak jasotzen ditu, testuinguruan emanak. Proposatzen duen ikasketa-metodoa ere oso praktikoa da, eta gaian are gehiago sakontzeko gogoia pizten du. *The Archaeology Coursebook* ospetsuaren hirugarren edizioaren itzulpena duzu esku artean, eta erabat eguneratua eta berregituratua dator.

Egileak:	Jim Grant, Sam Gorin, Neil Fleming
ISBNa:	978-84-1319-084-6
Urtea:	2019
Tamaina:	20 x 24
Orrialdeak:	462
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €

1818-2018. De la Escuela de Comercio del Consulado a la Facultad de Economía y Empresa. ELCANO - Kontsulatuko Merkataritza Eskolatik Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkano atalera



Liburu honek ibilbide liluragarri bat kontatzen digu, Bilbon, 1818an, lehen Merkataritza Eskolan hasi, eta gaur egungo Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia eta Enpresa Fakultatean kokatutako Elkano egoitzan amaitzen dena. Diziplina askotako eta prestakuntza heterogeneoko profesionalak osatutako talde batek ikastegiak izan dituen askotariko eraldaketak ikertu ditu.

Editoreak:	Ana Bilbao-Goyaga, Rosa de Diego
ISBNa:	978-84-9082-924-0
Urtea:	2018
Tamaina:	21 x 27
Orrialdeak:	188
Formatua:	Papera
Salneurria:	25 €


Munduaren eskualde geografia



Gizarte batek antolatutako espazioa aztertzen duen zientzia da geografia. Espazioa, baina, etena eta bereizia da, eta, horregatik, liburu honen helburua da Lurreko espazioaren antolaeraren ikuspegi sintetiko eta aski argi bat ematea, eskualde multzo handien berezitasunak erakutsiz. Gaur egun, bi espazio multzo handi daude, gizarte oso desberdinak dituztenak hala ongizateari nola garapen sozioekonomikoari dagokionez. Bi mundu dira: Iparraldea edo mundu garatua, eta Hegoaldea edo garabidean den mundua.

Egileak:	Blanca Azcárate Luxán, M.ª Victoria Azcárate Luxán, José Sánchez Sánchez
ISBNa:	978-84-9082-695-9
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	554
Formatua:	Papera
Salneurria:	36 €

Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954)



Erakunderik gabeko herrietan zaila da oso herritarren arteko loturak eta estekadurak bermatzea, nortasun kolektibo baten peskizan. Are zailagoa da, zalantzarik ez, hauen ibilbidea edo historia egitea, funtsean bat dena sakabanaturik eta bilbatu gabe agertzen baita. Ezin uka horixe gertatzen zaiola Euskal Herriaren historiari eta, zer esanik ez, euskararen historiari ere.

Egilea:	Anton Ugarte Muñoz
ISBNa:	978-84-9082-915-8
Urtea:	2018
Tamaina:	16 x 23
Orrialdeak:	510
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Antzinateko greziar munduaren historia politikoa



Antzinateko Greziaren historiaren bi mila urte aztertzeari esker, modu guztizko eta dinamikoan hurbildu daiteke Mendebaldeko munduaren eraikuntzan eginkizun nagusia izan duen barruti geografiko eta humanoko egitura politikoetara. Aro arkaikoaren ondoren, non Antzinateko greziar mundua ia ez baitzen bereizten asiar ingurunetik, hirien garaia etorri zen (VIII.-V. mendeak), eta orduan loratu zen greziar jenioa.

Egilea:	Marie-Françoise Baslez
ISBNa:	978-84-9082-724-6
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	324
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak Gipuzkoan, 1830-1936



Hiru helburu nagusi izan ditu egileak liburua osatzerakoan: bertsolarien lanek Euskal Herriko historiako iturri historiko gisa duten balioaz ohartaraztea; XIX. eta XX. mendeko Euskal Herriaren historiako modernizazio prozesuaren azterketan herri xeheak aldaketa horiek nola bizi izan zituen entzuteari garrantzia ematea; eta euskal identitatearen edota euskal identitateen gaia arazo gisa sortu eta gizartean zabaldu zen garaira ikuspegi kritikoaz hurbiltzea.

Egilea:	Luzia Alberro Goikoetxea
ISBNa:	978-84-9082-708-6
Urtea:	2017
Tamaina:	16 x 22,5
Orrialdeak:	642
Formatua:	Papera
Salneurria:	32 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	10 €
SAILA: Historia Garaikidea, 54	

Historiagintzaren ikuspegi berriak. Teoria eta praktika



Liburu honen helburua historiagintzaren alderdi teorikoan inguruan hausnartzen duen euskarazko testuliburua eskaintzea da. Horretarako, azken hamarkadetakako ikuspuntu teoriko berritzaileenak plazaratzeaz eta azaltzeaz gainera, historiografía klasikoaren berrikuste kritikoa eskaintzen da. Bildu ditugun hausnarketak post-sozial deitutako berrikuntza teorikoetatik abiatzen dira.

Egileak:	Bakarne Altonaga Begoña, Maialen Aranguren Alonso, Aintzane Rincón Díez
ISBNa:	978-84-9082-751-2
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	180
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	10,50 €


Amerika eta diaspora euskal literaturan



Amerikako euskal diasporak istorio ugari utzi ditu atzean: bertsoetan, kantetan, eguneroko pasadizoetan eta komunitate oso baten oroimenean. Liburu honek, Amerika eta Euskal Diaspora Euskal Literaturan, ahots isil horiek berreskuratu eta aztertzen ditu, euskal literaturaren barruan duten tokia eta esanahia argitzeko. Ez da soilik oroitzapen bilduma bat: euskal emigrazioaren esperientzia nola bihurtu zen diskurtso literario, kultural eta identitarioaren parte azaltzen duen azterketa sakona da.

Editoreak:	Asier Barandiaran Amarika
ISBNa:	978-84-1319-688-6
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	176
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	19 €

Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera



Joseba Sarrionandiaren literatura-sorkuntzaren gaineko lan monografikoa da esku artean duzun liburua. Artikuluak askotarikoak dira, eta idazle iurretarraren obraren ezaugarri behinenei erreparatzen diete. Horrela, Sarrionandiaren obraren inguruko ikuspegi integrala eskaintzeko asmoarekin, irakurleak ondorengo ekarpenak aurkituko ditu liburuan: batetik, tonu-pertsonalagoa duten edo idazlearen bizi-ibilbideari ere erreparatzen dieten lanak; eta bestetik, kutsu akademikoagoa duten beste zenbait artikulu.

Editoreak:	Nerea Eizaguirre Telleria, Mikel Ayerbe Sudupe
ISBNa:	978-84-1319-684-8
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	188
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	16 €

Gabriel Arestik ereindakoak 1975-2025



Berrogeita hamar urte pasatu dira Gabriel Aresti hil zenetik. Eta mende erdiko tarreak esanahi berezia hartzen duelarik, Gabriel Aresti Katedratik eta EHUtik omenaldi xume bat egin nahi izan diogu olerkari, idazle eta pentsalari handiari. Genero literario, komunikatzeko modu, ikertzeko bide eta gogoeta egiteko era desberdinak uztartzen ditugu omenaldi-liburu honetan. Eta testuekin batera, marrazkiak, lan grafikoak, akuarelak, irudi digitalak, komikiak, litografiak, collageak... ere apailatu ditugu.

Koord.:	Patxi Juaristi Larrinaga
ISBNa:	978-84-1319-631-2
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	180
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	22 €

Anjel Lertxundi: idazlea eta obra



Mende erditik gorako ibilbide oparoa egin du Anjel Lertxundik literaturan. Eta literaturan egindako lanari beste kultur esparru askotan egindakoa gehitu behar zaio; prentsan eta zineman, besteak beste. Obra eskerga horren askotariko ertzak aztertzen ditu liburu honek. Ikertzaile eta idazle askoren lankidetzari esker ondutako monografikoa da. 2023an egin zen Uda Ikastaroko hitzaldiak jaso dira bertan, eta baita Lertxundiren omenezko Zarauzko ekitaldietan eskainitakoak ere.

Editoreak:	Beatriz Zabalondo Loidi, Alexander Gurrutxaga Muxika
ISBNa:	978-84-9082-760-4
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	212
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	18 €


Rosvita. Teatro lanak.
X. mendeko Gandersheimeko elizemakumearen idazlan batzuk



Rosvita elizemakumea —«Gandersheimeko Aldarri Indartsua»— Gandersheimeko beneditar abadian bizi izan zen, X. mendean. Oro har, ez daukagu datu zehatzik haren bizitzari buruz; hala ere, litekeena da Saxonia Behereko familia noble batean jaio izana eta umetan heldu izana Gandersheimera. Bertako maistren gidaritzapean, autore klasikoen eta kristauen testuak irakurri zituen, eta, sei teatro-lan ez ezik, zortzi legenda eta bi historia-lan ere idatzi zituen.

Editorea:	Enara San Juan Manso
ISBNa:	978-84-9082-792-5
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	158
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	11,70 €

Egungo euskal albuma



Euskal literaturan azken urteotan izan diren berrikuntza handienetarikoa bat albuma izan da. Hitzez eta irudiz osaturiko objektu hibrido, aldakor eta malgua da albuma. Liburu honen bidez irakurlea albumen mundura hurbilduko da; liburu ilustratutik albumera dagoen eboluzioa ikusi, albumen lanketan dauden faktoreen berri izan eta haur txikien artean baina baita helduen artean ere gero eta presentzia handiagoa duen literatura mota honek dituen ezaugarriak ezagutu.

Editoreak:	Xabier Etxaniz Erle, Karla Fernández de Gamboa Vázquez
ISBNa:	978-84-1319-608-4
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	260
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	18 €

Bidaia - Viaje - Viagem - Travel - Voyage



Argitalpen honetan hainbat bidaia, bidaiatzeko modu edo bidaiairen inguruko gai bildu nahi izan ditugu, hizkuntza plastiko desberdinak erabiliz, hala nola idatzia**BIDAIA - VIAJE - VIAGEM - TRAVEL - VOYAGE...** hitzaren ikuspegi askotarikoak biltzeko, hainbat hizkuntzatan egiteko ausardia dugu, idatzizko ekarpenen kasuan hizkuntzen mugak gaindituz.

Egileak:	Maria Susana Jodra Llorente, Iratxe Larrea Príncipe, José Antonio Morlesín Mellado
ISBNa:	978-84-1319-436-3
Urtea:	2022
Tamaina:	20 x 20
Orrialdeak:	160
Formatua:	PAPER
Salneurria:	19 €

Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua



Bizitzari egindako gorazarre gisara kontsideratu zuen kritika ingelesak Karmele Jaioren (Vitoria-Gasteiz, 1970) *Amaren eskuak* (2010) eleberriarren itzulpena. Gorazarrea eta festa, esango genuke, bizitzaz gainezka dagoen fikzio hunkigarria. Horregatik harrapatzen du haren obrak irakurlea, erraiekin idatzitako lanak eskaintzen dizkiolako, bizitza bera bezain gordinak, ametsak bezain gozoak. Oinarrian, nola ez, keinuz beteriko egunerokotasun ustez ezdeus horrek bor-bor eragiten dizkigun emozioak.

Editoreak:	Marijose Olaziregi Alustiza, Amaia Elizalde Estenaga
ISBNa:	978-84-1319-446-2
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	236
Formatua:	PAPER
Salneurria:	16 €
BILDUMA:	Mikel Laboa Katedra bilduma, 6

Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa




Itzulera omen da marinel eta arrantzaleek gogoan dutena itsasoratzaren direnean. Herri eta familia arrantzale batean jaiotako idazlea dugu Kirmen Uribe (1970), Bizkaiko kostan, Ondarroan, hain zuzen, eta kresal usaina erraietan daramala esango genuke. Horregatik dira etengabeak haren obran itsasoratzak, haren herriko marinel eta arrantzaleen antzera, urruntzak itzultzearen promesa daramalako berekin.

Editoreak:	Mari Jose Olaziregi Alustiza, Amaia Elizalde Estenaga
ISBNa:	978-84-1319-125-6
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	208
Formatua:	PAPER
Salneurria:	14 €
BILDUMA:	Mikel Laboa Katedra bilduma, 4

EKONOMIA


Finantza kontabilitaterako sarrera



Liburu hau kontabilitate-hizkuntzaren oinarriak ulertzeko gida praktikoa da. Aproposa da finantza kontabilitatearekin lehen kontaktua izan behar duen ikasleentzat, ekintzaileentzat, eta kontabilitate informazioa interpretatu behar dutenentzat. Izan ere, finantza kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuetatik abiatu eta enpresa baten finantza-eragiketak nola erregistratzen, antolatzen eta interpretatzen diren azaltzen du.

Egileak:	Robert Ugalde Zabala, Libe Galdos Urbizu
ISBNa:	978-84-1319-630-5
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	308
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	22 €


Ekonomia zirkularra. Erabiltzailearentzako gida



Liburu labur honetan, lanpetuta dauden zuzendari eta politikarientzako funtsezko gaiak eta ekonomia zirkularren inguruko iritzi berrienetako batzuk bildu ditu arloko pentsalari gailenetako batek. Egiatzko bizitzako datuetan oinarritutako adibide eta kasu-azterketa praktikoak erabili dira liburuan aurkeztutako ideiak azaltzeko. Liburu honen egilea Walter R. Stahel da, ekonomia zirkularren kontzeptua formulatu zuten pertsona nagusietakotzat hartua.

Egilea:	Walter R. Stahel
ISBNa:	978-84-1319-599-5
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	112
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	14 €


Finantza kontabilitatea



Finantza kontabilitatea kontabilitatearen arloko prestakuntza akademikoari hasiera ematen dion Kontabilitaterako sarrera irakasgaiaren jarraipena da. Beraz, diziplinaren kontzeptuak eta oinarriak ezagunak direnez, kontabilitate eredua sustatzen duten printzipioetan sakonduko da eta eragiketa konplexuagoak aurkeztuko dira. Hala ere, Kontabilitaterako sarreran ikasitako zatiak gainbegiratu dira hasierako aurkezpen atalean errepaso eta kontsulta moduan.

Egileak:	Ander Ibarloza Arrizabalaga, Robert Ugalde Zabala
ISBNa:	978-84-1319-403-5
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	416
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €


Historia ekonomiko globala. Sarrera labur bat



Zergatik dira herrialde batzuk aberatsak eta beste batzuk pobreak? Liburu honetan geografiaren, globalizazioaren, aldaketa teknologikoaren, politika ekonomikoaren eta erakundeen eragin-trukea aztertzen da, munduko herrialdeen aberastasuna eta pobrezia nola finkatu dituzten erakusteko. Historiako adibideak erabiliz hazkundean eragina izan duten faktoreak aztertzeko, azaldu du zerk eragin duen gaur egun bizi garen mundu desorekatua.

Egilea:	Robert C. Allen
ISBNa:	978-84-9082-935-6
Urtea:	2018
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	146
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €


Esku ikusezinaren itzal luzea



Azken krisi ekonomikoaren harira, esan ziguten jatorrian finantza-tsunami edo -lurrikara zegoela. Adam Smithen esku ikusezin famatuak, beste behin, porrot egin zuen. Alta, merkatu libreak aldi oro azalarazten dituen gabeziak eta ezintasunak onartu eta erabakiak hartu beharrean, aldatu den bakarra liberalismo ekonomikoaren diskurtsoa izan da. Zertarako? Finantza-turbulentzien aitzakiapean *establishment*aren ardurak ezkutatzeko,merkatuak ureztatu behar direla esateko edo bankuak erreskatatzeko.

Egilea:	Joseba Permach Martin
ISBNa:	978-84-9082-921-9
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	134
Formatua:	Papera
Salneurria:	16.50 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	9 €

Amerika, Clint Eastwooden arabera. Westernaren heriotza eta berpizkundea



Liburu honek Clint Eastwood zinegilearen obran dauden gaiak, figurak, aurkezpen formalak eta egiturak erakutsiko dizkigu, Clint Eastwood nor den ezagutzeko balio dizkigutenak. Mendealde Basatiaren mundua mugatzen duen koordinatu kronologiko eta geografikoaz haratago, genero amerikarrari datzekion ezaugarriak, berezitasunak, egiturak, gaiak, formak eta arketipoak ere aurkitu daitezke Eastwooden beste lan batzuetan.

Egilea:	Ignacio Gastaka Eguskiza
ISBNa:	978-84-9082-804-5
Urtea:	2024
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	272
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Komunikazio seriea, 29	


Fotokazetaritza: argazkigintzaren teknika eta kazetaritzaren egitekoa



Eskuliburu honek argazkigintzaren alde praktikoa eta unibertsitate-mailako teoria biltzen ditu. Argazkigintzan interesa dutenek argazkiak ateratzeko teknika eta konposizio-arauak aurkituko dituzte, baita irudi-artxiboak antolatu eta tratatzeko azalpenak ere, adibideekin. Era berean, argazkiak argitaratzeko hainbat baliabide zehazten dira. Fotokazetaritza ikasi gura dutenek haren historia eta fotokazetarien lanak ezagutu ahal izango dituzte, ikuspegi europarrari jarraikiz, eta euskarazko fotokazetaritzaren garapena azalduz.

Egilea:	Maria Gorosari González
ISBNa:	978-84-1319-385-4
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	190
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	12,36 €

Berrien idazkera. Albistearen lantzeko oinarritzako eskuliburua



Zerk bihurtzen du egitate edo gertakari bat albiste? Nola idazten du eta egituratzen du kazetariak testua? Zer irizpideren arabera erabakitzen du zer den garrantzitsua eta zer ez berria idazten hasi aurretik? Horri guztiari erantzuten dio begien aurrean duzun eskuliburuak. Izan ere, idazti hau oinarritzko lana da Kazetaritza ikasleei berrien idazkeraren prozesuan sartzen laguntzeko.

Egilea:	Alazne Aiestaran Yarza, José Mari Pastor González
ISBNa:	978-84-1319-331-1
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	178
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13 €

Olariagaren trantsizioa. *Egin* egunkariaren eta Zakilixuten jaiotzak



Hogeita hamar urte pasatxo dira euskal prentsako pertsonaia umoristiko famatuena jaio zela: Antton Olariagaren Zakilixut delakoa. Trantsizio-garaitik hona dabil tokiko prentsa kitzikatzen, garai batetik non sexu-pasarteak –eta oro har, moral-kode meharren barruan zegoen oro– estu-estuan konta baitzitezkeen. Gosea baino argiagorik ez badago, Olariaga bai izan dela buru-argi: gaur egun, hain ikertua den Konstituzioaren gestazio-garaian hasi zen Olariaga *Egin* egunkarian marrazkilari.

Egilea:	Aitor Castañeda Zumeta
ISBNa:	978-84-1319-081-5
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	214
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
Mikel Laboa	Katedra bilduma, 3

IkasLab. Etorkizuneko Gelaren kontzeptualizazioa eta garapena Euskadin



Liburu hau uste sendo partekatu batetik sortu da, ikas-espazioak hezkuntza-berrikuntzako prozesuen funtsezko atal gisa birpentsatzeko beharretik, hain zuzen. Etengabe aldatzen ari den testuinguru honetan, non eskaera sozial eta teknologikoei asko eraldatzen duten ikasteko, irakasteko eta erlazioatzeko dugun modua, gela ezin da ulertu edukiontzi fisiko huts gisa, baizik eta ezagutza eraikitzeo eragile aktibotzat hartu beharra dago.

Koord:	Naiara Bilbao-Quintana, Arantza López de la Serna, Urtza Garay Ruiz
ISBNa:	978-84-1319-702-9
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	222
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	22 €


Komunikazioa irakaskuntzan



Liburu honen helburua da hezkuntza-arloko komunikazioari buruzko ikerketa-ildoak ez ezik, irakaskuntza-esparruan garatutako urrats eta proiektuak ere ezagutzera ematea. Argitalpen hauek irakasleei baliabide teorikoak eskaintzen dizkiete beren jardunaren inguruan hausnartzeko, besteak beste, irakurketaren, idazketaren, didaktikaren eta hizkuntzaren inguruan.

Egileak:	Maribi Unamuno Garate, Lorea Unamuno Goiriena
ISBNa:	978-84-1319-692-3
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	204
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	24 €

Informazio eta Komunikazio Teknologiak Haur eta Lehen Hezkuntzan



Iraultza digitalak aldaketa soziologiko nabarmenak eragin ditu eta horrek paradigma pedagogikoa birmoldatzea eskatzen du. Teknologia hezkuntza-jardueran txertatu behar da, baina, hori egiterakoan, ezinbestekoa da diskurtsotik praktikara salto egitea eta teknologia metodologia aktiboan osagai bezala ulertzea. Azken finean, ulertzea garapen teknologikoa ez dela zuzenean berrikuntza pedagogikoa bilakatzen. Erronka horretan oinarritzen da eskuliburu hau.

Egilea:	Rakei Gamito Gomez
ISBNa:	978-84-9082-725-3
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	138
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	18 €


Pikler-Lóczy hezkuntzaren gakoak. Haren sortzaileek idatzitako 20 artikuluren bilduma



Urte batzuetatik hona gure inguruan interes zintzo bat piztu da Pikler-Lóczy hezkuntza ezagutzeko. Litekeena da neurri batean moda-kontu bat izatea, edo, besterik gabe, interes horrek azaleratu lezake berezko izaera duen hezkuntza goiztiarrerako eredu baten beharra. Emmi Pikler-ek, Lóczy kaleko umezurtz-etxeko lantaldearekin batera, lehen haurtzaroko garapenari eta ongizateari lehentasuna eman zien, ...

Editorea:	Elena Herrán
ISBNa:	978-84-1319-487-5
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	396
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	22 €

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen antolakuntza Euskal Autonomia Erkidegoan



Liburu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen antolakuntzaren inguruko deskribapen eta hausnarketaren emaitza da. Ikastetxeak gizartearen egitura garrantzitsuenetakoak direla kontuan hartuz, liburua gidatu duten galdera-eragileak honako hauek dira: zein da ikastetxearen esanahia? Zergatik eta nola antolatu behar da ikastetxe bat? Eraldaketarako aukerarik ematen al du? Eta, ziurrenik, garrantzitsuena: zertarako ikastetxe bat?

Egileak:	Elizabeth Pérez Izaguirre, Nerea Permach Martín
ISBNa:	978-84-1319-474-5
Urtea:	2022
Tamainua:	17 x 24
Or.:	92
Formatua:	PAPERA
Salmenta:	12 €
Formatua:	PDFa
Salmenta:	4 €


Gazte eleaniztunak. Mintzalari eta mintzagai



Euskal Herriko gazte eleaniztunei buruz dihardute liburu honetako hamalau kapitulek; haien praktika eleaniztunek gurutzatzen dute liburuko atal oro. Gazte eleaniztunen hizkuntza-praktikak eta -ideologiak ikertzeko ikuspuntu ugari azaltzen dira liburu honek biltzen dituen lanetan. Askotan esaten da Euskal Herria hizkuntza-laborategia dela. Agerian geratu da hori, beste behin, eta ezin hobeto baliatu dute gure laborategi hau liburuan parte hartu duten egileek.

Editoreak:	Beñat Muguruza Aseginolaza, Irantzu Epelde Zendoia
ISBNa:	978-84-9860-841-0
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	308
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	22 €


Proiektuetan, lan praktikoetan eta eztabaidetan oinarritutiko ikaskuntza



Liburu hau diskurtsoaren eta praktikaaren arteko espazio deserosoan bizitzeko gonbita da. Zientziak irakasteko modu hobeen bilaketa kontatzen duen bidaia-egunerokoa. Ikasgelan aplikatutako 28 proposamenetan eta haien berrikuspenean, hainbat ikuspegi metodologiko lantzen dira: ikerketa, arrazonamendu zientifikoa, Proiektuetan eta Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza, Konponketa Sozio-zientifikoak eta Sasizientziak.

Egilea:	Jordi Domènech Casal
ISBNa:	978-84-1319-411-0
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	164
Formatua:	PAPERa
Salneurria:	14 €


Ikaskuntza-Zerbitzua metodologian oinarritutako Gradu Amaierako Lanak garatzeko gida praktikoa



Gaur egungo pobreei, desberdintasunak, aberastasun naturalen eta kulturalen usurpazioak, garatzeko gida praktikoa emakumeen eta gutxiengoen kontrako indarkeriak edota krisi humanitario eta ekologikoak erantzun sendoa behar dute, erantzukidetasunetik zein konpromisotik. Unibertsitateak horren parte izan behar du eta Ikaskuntza-Zerbitzua metodologia (I+Za) erronkari erantzuteko bide ezin hobea da.

Editorea:	Rakel Gamito Gomez
ISBNa:	978-84-1319-469-1
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	164
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	11,70 €

Askotariko adimenak martxan



Liburu honen bidez, irakurleak jakingo du zer oinarri pedagogikotan funtsatzen den Montserrat ikastetxearen eguneroko jarduna, bai eta zer hezkuntza-jarduera bideratzen dituen askotariko adimenak lantzeko 0-6 urteko haurren artean, bizitzako aldi hori erabakigarriena baita burmuinaren garapen neurologikorako. Helburua beti bat bera da: haur jakintsuagoak eta zoriontsuagoak hezteak.

Egilea:	Montserrat Del Pozo
ISBNa:	978-84-1319-333-5
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	300
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €


Zergatik eta nola bihurtu didaktikari?



Jean-Paul Bronckartek, zeina hizkuntzaren didaktikaren sortzaileetako bat baitugu, historia bat proposatzen digu hemen, oinarritzat harturik, batetik, diziplina honen egoeraz diharduten zenbait dokumentu, eta, bestetik, diziplinak hizkuntzalaritzarekin eta garapenaren psikologiarekin duen harremana. Hizkuntzen didaktikari ekarpena egiten dioten bi zientzia horien ezagutzatik abiatuta, eta betiere arazo didaktikoei irtenbide zehatzak aurkitu nahian.

Egilea:	Jean-Paul Bronckart
ISBNa:	978-84-1319-278-9
Urtea:	2020
Tamaina:	14 x 20
Orrialdeak:	184
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


Pozik bizi. 8-10 urte bitarteko umeen emozioak eta depresio-sintomak hobetzeko programa



Depresioa munduan hedatuen dagoen gaixotasuna da: 300 miloi pertsonari eragiten diela jotzen da. Haurrengan eta nerabeengan ere oso maiz ageri da. Hala ere, haurrengan gutxitan diagnostikatzen da, hurrek askotan ez baitakite zer gertatzen zaien edo ez baitute behar bezala azaltzen beren ondoeza. Horregatik, gurasoek ez ezik, eskolak eta irakasleek ere paper garrantzitsua izan dezakete depresioaren identifikazioan.

Egileak:	Elena Bernaras Iturrioz, Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor, Maite Garaigordobil Landazabal
ISBNa:	978-84-1319-061-7
Urtea:	2019
Tamaina:	20 x 26
Orrialdeak:	144
Formatua:	Papera
Salneurria:	25 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	8 €


Hizkuntza-normalizazioa. Planak eta plangintzak ikastetxeetan



Eleaniztasuna eta Hezkuntza Europarra Masterrean kokatuta dagoen Hizkuntza Normalkuntza Plangintzak Ikastetxeetan ikasgaiak eskaini digu aitzakia honako liburu hau idazteko, UPV/EHUko ikasleriak eskura izan dezan kontzeptuak lantzeko kontsultategia. Hala ere, jatorria, hastapenean Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza Plangintza (IHNP) izenez eta geroago Ulibarri Programa izenez ezagutzen dugun horretan koka genezake.

Egileak:	Miren Lore Erriondo Korostola, Xabier Isasi Balanzategi
ISBNa:	978-84-9082-659-1
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	144
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €


Gizarte psikologiarako sarrera



Eskuliburu honen bidez, Gizarte Psikologiara hurbiltzeko gonbita egiten da. Hain zuzen, eskuliburuak Euskal Herriko Unibertsitateko graduetan eskaintzen den Gizarte Psikologia irakasgaiko oinarritzko edukiak euskaraz lantzea ahalbidetzen du. Nagusiki, Gizarte Psikologiako teoria klasikoak eta oinarritzko kontzeptuak azaltzen dira eskuliburuan, eta edukiak barneratzeko zein haien aplikazioan trebatzeko jarduerak jasotzen dira.

Egileak:	Idurki Soubellet Fagoaga, Lorena Gil de Montes Etxaide
ISBNa:	978-84-1319-627-5
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	128
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

Adikzioen Psikologia eta Osasuna



Droga-kontsumoak eta adikzioak problema konplexua osatzen dute, ertz desberdinetatik begiratu daitekeena. Liburu honek adikzioen fenomenoak deskribatzen du ikuspuntu psikologiko-kliniko batetik. Gai hauek aztertzen dira: adikzioen etiologia, hau da, adikzioen sorrera espikatzen duten teoriak, enfasia eginez nortasunaren eta adikzioaren arteko loturan; drogen sailkapen oinarritzko bat, portaeraren adikzioei arreta berezia eskainita; eta, azkenik, droga-kontsumoaren eta adikzioaren ebaluazioa, tratamendu psikologikoak eta prebentzioa.

Egileak:	Juan Manuel Machimbarrena Garagorri, Eneko Sansinenea Mendez, Gorette Soroa Martinez
ISBNa:	978-84-1319-420-2
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	154
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	11,70 €

Hautzaroaren psikologia



Henri Wallonek erabateko ekarpena egin dio hautzaroaren psikologiari. Aldi berean ikuspegi genetiko eta dialektikotik haurren bilakaera berraztertzen duten faktoreen eta jaiotzetik bertatik bilakatzen diren unen inguruko ezagutza zabala eta sakona zehaztu du. Wallonen ekarpena ezagutzeak, haur txikia hobeto ulertzearekin batera, haren garapenari begira haurra hazten den testuinguruaren garrantziaz ohartzea dakar.

Egilea:	Henri Wallon
Editorea:	Elena Herrán Izagirre
ISBNa:	978-84-9082-801-4
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	112
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €


Komunitate imajinatuak



Oraindik ere ohargarri eta eztabaidagarri da Benedict Andersonen lorpen intelektualaren zenbaterainokoa. *Komunitate imajinarioak* honek ez dio utzi nazionalismoaren jatorriei buruzko libururik itzaltsuena izateari, Mendebaldeko pentsamenduaren tradizioetan zegoen hutsunea egoki betez. Giza zientzien arloko ingelesezko libururik aipatuena da, eta mundu osoan ditu irakurleak hogeita hamar itzulpen baino gehiagori esker.

Egilea:	Benedict Anderson
ISBNa:	978-84-1319-673-2
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	260
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €

Gizarte zerbitzuen euskal sistema



Gaur egungo gizarteak eraldaketa sozial sakon eta konplexu batean murgilduta daude. Alde batetik, zenbait faktorek eragin nabarmena dute gero eta desorekatuagoa den gizartearen behar sozialetan, hala nola, krisi ekonomikoen eta sozialen kateamenduak, aldaketa demografikoak, migrazio-prozesuak, krisi klimatikoak nahiz eraldaketa teknologikoak. Bestetik, eskubideen aitortpenean gizarteak egin duen aurrerabideak agerian jartzen ditu egungo behar eta errealitate sozialak, eta horiei modu eraginkorrean erantzuteko premia.

Editoreak:	Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Noemi Bergantiños Franco Noemi Bergantiños Franco
ISBNa:	978-84-1319-676-3
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	338
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

Kongresuaren aktak



Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak (EUROBASQUE) bultzatuta, liburu honek Europako Biltzarraren Aktak jasotzen ditu osorik, eta lehen aldiz euskaraz. Osoko bilkuretako eta lan-batzordeetako aktez gain, Biltzarrean hartu ziren ebazpenak ere jaso dira. Kongresua egin eta ia zortzi hamarkada geroago, akta horiek kontsultatzea oraindik ere ezinbestekoa da ulertzeko Europaren integrazioaren jatorria eta Europako Mugimenduak hartan izan zuen erola.

Editorea:	EuroBasque. Europar Mugimenduaren Euskal Kontseilua / Consejo Vasco del Movimiento Europeo
ISBNa:	978-84-1319-651-0
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	577
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Antropologoek zer egiten duten



Zergatik ikasi behar zenuke antropologia? Nola lagunduko dizu giza portaera ulertzen? Eta lanean hastea ahalbidetuko dizun zer irakatsiko dizu? Liburu honen bidez, gaur egun antropologia ikasteak benetan zer esan nahi duen deskribatuko dugu, eta antropologian trebatzen direnei eskaintzen dizkien ibilbide-aukera ugariak aztertuko ditugu. Antropologiak sakon aztertzen du dibertsitate soziala eta kulturala pertsonen zer uste eta balio dituzten ulertzeko,...

Egilea:	Veronica Strang
ISBNa:	978-84-9082-677-5
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	332
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Odolaren matxinada. Gorputza, politika eta afektuak



Liburu honek egun bizi ditugun hainbat aldaketa sozial eta kulturaletan murgiltzen gaitu, hilekoaren politika eta kultura alternatiboei buruzko etnografia bat abiapuntu harturik. Hilekoaren normatibitatea osatzen duten esanahi biomediko eta kultural nagusiak identifikatzeaz harago, azken hamarkadetan, borroka feministen ondorioz, horri erantzuten dioten praktika politiko, afektibo eta estetikoak zein genero konfigurazioak aztertzen ditu.

Egilea:	Miren Guilló Arakistain
ISBNa:	978-84-9082-822-9
Urtea:	2024
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	282
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Gizarte Zientziak seriea, 33	

Micaela Portilla Saria 2020

Immigrazioa eta abertzaletasuna




Lan honetan, funtsean, hiru periodo jakinetan, hala nola 1) 1876tik aurrera, 2) frankismoan eta 3) azken mende bueltan, Hego Euskal Herria etorritako migratzaileen kopuru handiak indar abertzaleen aldetik zer-nolako diskurtsoak sortu dituen azaltzen da —Kataluniakoa ere ukitzen da baina gaingiroki—. Ez inola ere modu exhaustiboan, lagin adierazgarri batzuen bitartez baizik. Eta azterketa horretan hizkuntzari garrantzi berezia ematen zaio.

Egilea:	Pako Sudupe Elortza
ISBNa:	978-84-9082-618-8
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	170
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDF
Salneurria:	11,70 €

Emari transfeministak haur hezkuntzan

Profesionala, pertsonala eta politikoa elkar gurutzatuz.



Gaur egun indar handia hartu du genero-ikuspuntuak eta feminismoek zenbait agertoki sozial eta instituzionaletan. Hala ere, zenbait diskurtso eta egiteko modu errotzen hasi dira, eta askotariko kezkak sortzen ari dira. Ikerketa honek hiru kasu-azterketa jasotzen ditu. Lehenak eskolaren erradiografia bat egiten du, eta eskolako zenbait erronka jaso; bigarrenak identitatearen garapena aztertzen du, eta hirugarrenak aurreko ikuspuntuen elkarguneak bilatzen ditu.

Egilea:	Irati León Hernández
ISBNa:	978-84-9082-646-1
Urtea:	2024
Tamaina:	15 x 23
Orrialdeak:	148
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €
Gizarte Zientziak seriea, 32	

Teresa del Valle, bidegile eta gidari



Teresa del Valleri buruz liburu honetan bildu ditugun artikulua gaika antolatuta dugu. Antropologo handiaren lanaren lau zutabe garrantzitsuenak botere-harremanak, hizkuntza-arazoa, antropologiaren begiekin ikusitako espazioa eta antropologiaren etorkizuna dira. Haren hasierako lanetatik hasi eta berrienetaraino abiatzen dira bata bestearen atzetik gai ugari. Azken batean, gogorarazten digute Teresaren lan intelektual guztia irakurketa eta iradokizun agortezinen iturria dela.

Egilea:	Pio Perez Aldasoro
ISBNa:	978-84-1319-555-1
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	232
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

Demokrazian sakontzea eta parte hartzea, hainbat eskalatan



Maila ezberdinetan, globaletik tokikora, eta forma ezberdinak hartuz, demokrazia bide berriak bilatzen ari da gure garaian. Ahultzen ari diren demokrazia-eredu zaharragoen aurrean, azken urteetan demokrazian sakontzeko nahia adierazten duten dinamikak antzeman dira askotariko eremuetan; bai eta herritarren parte hartzeko modu berriak ere. Horiek guztiak dira lan honetan aztergai. Liburu honen egileek konbentzimendu irmoa partekatzen dute demokraziaren etorkizuna oraindik idazteke dagoela.

Editoreak:	Leire Escajedo San Epifanio, Julen Zabalo Bilbao, Igor Filibi López
ISBNa:	978-84-1319-550-6
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	476
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €


Emakume bizkor eta eraginkorrak Bilbon (1800-1936)



Bilboren garapenean parte hartu zuten emakumeen bitartez, hiriaren historia hobeto ezagutzeko parada eskaintzen du liburu honek. Horretarako, bi atal nagusitan antolatu da, aipatu emakumeek Bilbon egin zuten bizitza oinarritzat hartuta. Lehendabiziko atalean, hiru ikerketaren bitartez, historia garaikidean emakumeek Bilbon bizi izan zuten egoera jarri da bere testuinguruan. Bigarren atalean, historia horren hamar protagonista aurkeztu dira.

Editoreak:	Joseba Agirreazkuenaga, Mikel Urquijo, María José Villa
ISBNa:	978-84-1319-164-5
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	172
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

Emilio Lopez Adan. Euskal iraultza libertarioaren pentsalari



Lehen partea biolentzia politikoaren memorien gainekoa da. Militantziari dagokionez, erabat harturik, 1964tik 1974ra ETAn militatu zuen. Lopez Adanen jardueran alde ideologiko-intelektuala gailentzen da; gehiago izan da teorikoa ekintzailea baino; hori esan orduko erantsi behar da, baina, alde teorikoa praktikarekin oso loturik garatu izan duela beti. Bigarren partean, iraultzaren eta borbaxaren arteko harremanez Lopez Adanek aditzera emandakoak tolestean dira.

Egilea:	Pako Sodupe Elortza
ISBNa:	978-84-1319-245-1
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	220
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13 €

Euskadi indarkeriaren ondoren
Euskadi después de la violencia



Liburu honek Euskadiko ETaren ondorengo egoera edo bake-prozesua aztertzen ditu, ideologia-eta metodologia-ikuspuntu ezberdinetatik, gatazkaren ostekoak diren honako gai giltzarri hauen gaineko gogoeta eginez: biktimen politikak, justizia leheneratzailea eta justizia trantsizionala, adierazpen-askatasuna, ETaren armagabetzea eta desagertzea, indarkeriak gizartean izan duen eragina...

Zuzendaria:	Jon Mirena Landa Gorostiza
Koord.:	Enara Garro Carrera
ISBNa:	978-84-9082-393-4
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	310
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €


Nazionalismoa eta kultura. Entseguak eta iruzkinak Euskal Herriaren alde



Badira bi urte lagun on batek iradoki zidalda liburu berri bat argitaratu nezan han eta hemen sakabanatuta ditudan testuekin bilduma bat osatuz. Eskertu nion oharra. Testuak biltzeko orduan, (...) ideiak argituz joan ziren, hasierako aurkibideari beste bizpahiru testu gehitu nizkion eta liburuaren taxua berez nabarmendu zitzaidan buruan. Emaiza esku artean duzuen da.

Egilea:	Pruden Gartzia Isasti
ISBNa:	978-84-1319-247-5
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	174
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	11,70 €

Mundu-ikuskerak. Nazioarteko Harremanetako korronte teorikoak



Karlos Pérez de Armiño Nazioarteko Harremanetako irakaslea da UPV/EHuko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Halaber, Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzailea eta zuzendaria da. Liburu honetan Nazioarteko Harremanak deritzogun diziplinaren mapa teorikoa marrazten da; hau da, arlo akademiko hori osatzen duten korronte teoriko desberdinen, eta joera horien artean izaten diren eztabaiden ezaugarriak azaltzen dira.

Egilea:	Karlos Pérez de Armiño
ISBNa:	978-84-1319-101-0
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	242
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

Ikerkuntza sozialaren estiloak. Epistemologia, anarkia zerbait eta soziosofia pixka bat



Ordena soziala politikaren bidez egiten da (profesionalek lagunduta), eta zientziaren bidez pentsatzen da (ikerkuntzak lagunduta). Gizarteak aldatuz joan da, ekiteko eta gogoeta egiteko baliabideak ere aldatu egin direlako. Ikerkuntza sozialean, zehazki, teknika kuantitatiboen enfasia baztertu eta teknika kualitatiboak erabiltzen hasi dira, teknika parte-hartzaile eta esku-hartzaileetara iritsi arte. Zer soziala eraikitzeko modu heteronomo eta hierarkiko bat adierazten dute teknika horiek.

Egilea:	José Ángel Bergua
ISBNa:	978-84-9082-917-2
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	236
Formatua:	Papera
Salneurria:	17 €

Nazioarteko Harremanak zer diren



Autoreek sistematikoki lantzen dituzte Nazioarteko Harremanen teoriako ikergai klasikoak –boterea, interes nazionala, kanpo-politika eta gerra–, eta orobat aztertzen dute globalizazioak segurtasunean, gobernantzan eta mundu-ekonomian izan duen inpaktua. Horrenbestez, agerian jartzen dute nola hizpide diren teoriak baliagarri diren zentzua emateko munduko gertakarien puzzleari.

Egilea:	Chris Brown, Kirsten Ainley
ISBNa:	978-84-9082-781-9
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	320
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €


Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitza



Liburu honetan Nazioarteko Harremanetako nozio gakoetara hurbiltze berri bat eskaintzen da. Diziplina honetako hamalau indar-idea eta kontzepturen aukeraketaren bitartez, lan hau eztabaidarako gaiekin lehenengo kontaktua izango da. Sarritan, irakasgai honetako zailtasunetarikoa bat termino zehatzen erabileran datza; diziplinaren beraren garapena markatu eta azalpen bat merezi duten nozioak.

Koord.:	Ander Gutiérrez-Solana
ISBNa:	978-84-9082-502-0
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	216
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €

Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten. Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu



Ikerketa lan honetan, eromen terminoa berreskuratu nahi izan du egileak. Mendebaldeko medikuntza-sistema hegemonikoak «buruko gaixotasuna» erabiltzen du gaur egun; baina termino horrekin, ez da adierazten «deskubritze» hori kulturalki eta sozialki baldintzatuta dagoela. Kontrako aldean koka dezakegu eromen terminoa; zientifikotasunik gabekotzat jotzen da gehienetan.

Editorea:	Itxaso Martin Zapirain
ISBNa:	978-84-9082-761-1
Urtea:	2017
Tamainua:	15 x 23
Or.:	328
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €

SAILA: Gizarte Zientziak saila, 22

Micaela Portilla Saria 2016


Zuzenbide Zibila



Mortis causa oinordetza Zuzenbide Zibilaren atal zirraragarri bezain teknikoa da. Pertsona fisiko oro hiltzean irekitzen da oinordetza, eta hark hainbat etapa igarotzen ditu, hildakoaren oinordekoek dagozkien ondasunak eskuratu arte. Prozesu horrek izan ditzakeen protagonistak eta haien eskubide zein betebeharrak xehetasunez aztertzea du helburu esku artean duzuen eskuliburu honek. Oinordetza Zuzenbideak ez du jasan, mendeetan zehar, Familia Zuzenbideak jasan duen tamainako aldaketarik.

Zuzendaria:	Leire Imaz Zubiaur
Koord:	Jon Atxutegi Gutierrez
ISBNa:	978-84-1319-691-6
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	356
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Zuzenbide Zibila



Aurkezten dugun Familia Zuzenbidearen eskuliburuak planteamendu desberdina du ikasleek liburu-dendetako edo liburutegietako apaletan aurkituko dituzten Familia Zuzenbidearen gainerako eskuliburuekin alderatuta. Egin dugunontzat ez dago familia kontzeptu bakar bat (tradizioz, ezkontzazkoa), baizik eta aterki beraren aurrean gaude, hagaxka ezberdinek eutsita. Eskuliburu honetan familiari buruzko kontzeptu hori hartzen da abiapuntutzat.

Zuzendaria:	Leire Imaz Zubiaur
Koord:	Jon Atxutegi Gutierrez
ISBNa:	978-84-1319-683-1
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	328
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Zuzenbide Zibila Eskubide errealak eta Jabetza Erregistroa



Jabetzaren eta eskubide errealen inguruan gogoeta ugari eta eztabaida sakonak egin badaitezke ere, lasai egon. Guk, hemen, ez ditugu aztertuko xehetasun, eztabaida, doktrina edo erakunde juridiko konplexu asko. Hala, burutazio horiek saihestuz, funtsezkoena azpimarratu eta azaldu ahal izango dugu, *non multa sed multum* esaera klasikoaren arabera, hori delako behar bezain hezigarria den eskuliburu bat egiteko modu bakarra: gauza asko azaldu partez, ezagutza sendoa sustraitzea.

Zuzendaria:	Leire Imaz Zubiaur
Koord:	Jon Atxutegi Gutierrez
ISBNa:	978-84-9082-874-8
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	342
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Zuzenbide Zibila
Obligazioak, Kontratuaren Teoria Orokorra eta Kontratuak



Zergatik da hain garrantzitsua gure hizkuntzan Zuzenbide Zibilariburuzko eskuliburu bat izatea? Hezkuntza-materialak sortzeak euskara sustatzen eta normalizatzen laguntzen du. Euskararen Aholku Batzordeak «XXI. mende hasierako hizkuntza politikarako oinarriak: itun berritu baterantz» bere dokumentuan azpimarratzen duen bezala: euskarazko hezkuntza-materialak sortzea funtsezkoa da hizkuntza indartzeko eta euskal ikasleentzat hezkuntza inklusiboa eta garrantzitsua bermatzeko.

Zuzendaria:	Leire Imaz Zubiaur
Koord:	Jon Atxutegi Gutierrez
ISBNa:	978-84-9082-864-9
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	514
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €


Zuzenbide Zibila. Sarrera, eskubide subjektiboa eta pertsonaren zuzenbidea



Eskuliburu hau zabaldu eta irakurtzen hasi orduko, agian, honako galdera honek alsaldutako zaitu: «Zuzenbide Zibileko eskuliburu hau eta ondoren etorriko direnak arakatzten amaitzen dudanean, zertarako balioko didate egindako lanek, pilatutako nekeek eta horretan erabilitako hainbeste orduk?». Erantzuna ez da bakuna ez bakarra. Hori bai, ziur izan Zuzenbide Zibileko ikasketek askeago izaten lagunduko zaituela; izan ere gure eskubide eta betebeharren berri izatea eskatzen du.

Zuzendaria:	Leire Imaz Zubiaur
Koord:	Jon Atxutegi Gutierrez
ISBNa:	978-84-1319-576-6
Urtea:	2023
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	386
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


Oinarrizko eskubideak eta haien bermeak



Liburu honen xedea da konstituzio-eskubideen eta oinarrizko eskubideen estatutu juridikoa lantzea, eta, horrekin batera, horien iturria, oinarrizko eskubidearen kontzeptua, izaera, bai eta horien sailkapenari, titulartasunari, eraginkortasunari, interpretazioari eta mugei buruzko gaiak aztertzea. Bigarrenik, oinarrizko eskubideen berme-sistema aurkeztzen da: berme arauemaile, instituzional eta jurisdikzionalak bereizten dira, eta azken horiei arreta berezia eskaintzen zaie.

Egilea:	Javier Tajadura Tejada
ISBNa:	978-84-1319-463-9
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	192
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

Administrazio publikoen analisirako sarrera



Gaur egun Gobernu eta Administrazio Publiko gisa ezagutzen dugunaren konplexutasuna dela eta (funtzioen, antolakundeen, kudeaketa-tekniken eta beste eragile soziopolitiko batzuekiko erlazio ugarien aniztasuna barne hartuta), Administrazio publikoen analisirako sarrera eskuliburuak gaiari buruzko egungo tresnetara, interpretazio-ereduetara, testuinguruetara eta eztabaidetara hurbiltzea eskaintzen du.

Egileak:	Hainbat egile
ISBNa:	978-84-1319-235-2
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	196
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

Lanerako eta komunikaziorako teknikak



Irakaskuntzak erakusten du ez dela nahikoa zerbait jakitea –hau da, ezagutza jakin batzuk ikastea, onenean–, baizik eta, horretaz gainera, egiten jakin behar dela; eta oso bestelako kontua da hori. Ez da nahikoa informazioa izatea; informazio hori manipulatzeko, erabiltzeko, aplikatzeko, baliatzeko, interpretatzeko eta aztertzeke behar da.

Zuzendaria:	Max Turull Rubinat
ISBNa:	978-84-1319-279-6
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	344
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €

Lege-alderdiei buruzko hastapenak EAEko eraikintza-prozesuan



Arkitektura Teknikoko Graduoko bigarren mailako Zuzenbidea ikasgaia jarraitzeko eskuliburu honen helburua da ikasleei ezagutzera ematea legezko marko profesionala, eta erraztea beren lanbidean erabili beharko duten ordenamendu juridikoari buruzko oinarritzko ezagutza, beren bizitza profesionalaren abiapuntuan koka daitezkeen tresna juridikoak eta teknikoak ezagutu ditzaten.

Egilea:	Maria Iceta Etxabe
ISBNa:	978-84-1319-239-0
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	446
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

Hiztegi juridikoa



UPV/EHU da gaur egun zientzia juridikoen alorreko ikasketak oso-
osorik euskaraz eskaintzen dituen
erakunde bakarra. Eta, hain zuzen
ere, erakunde honen konpromisoari
eta bertako irakasle eta ikertzaile
euskaldunen urteetako ekarpenari
zor diegu eskuen artean dugun
hiztegia. UPV/EHUren Zuzenbide
Fakultatearen 50. urteurrenaren
ospakizunen artean, hementxe
dugu hiztegi hau zientzia juridikoak
euskaraz irakasten egin ditugun 30
urteen ekarpen gisa.

Koord.:	Xabier Alberdi Larizgoitia, Miren Azkarate Villar, Joseba Ezeiza Ramos, Leire Imaz Zubiaur, Ixusko Ordeñana Gezuraga
ISBNa:	978-84-1319-091-4
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	332
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

BIZITZAREN ZIENTZIAK

OSASUN ZIENTZIAK


Erizaintzako oinarrizko zainketak



Erizaintzako Graduan pertsonei zainketak ematen irakasten da. Zainketen beharrak sortzen badira, pertsonek berek (paziente, gaixo edo erabiltzaileek berek) hartzen dituzte zaintzen ardurak, ezagutza, indarra eta borondate nahikoa dutenean. Hala ere, beste hainbatetan erizainen laguntza behar izaten dute beren osasun-beharrak asetzeko. Zainketa horiek emateak ezagutzak eta trebezia eskatzen ditu ezinbestean.

Egileak:	Mari Jose Uranga Iturriotz, Beatriz Pereda Goikoetxea
ISBNa:	978-84-1319-670-1
Urtea:	2025
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	392
Formatua:	Papera
Salneurria:	25 €


Digestio Aparatua. Patologia Orokorra eta Endoskopia



Medikuntzako ikasleek beren bidean digestio-arloari buruzko kalitatezko materiala izateko ilusiotik jaio da liburu hau: digestio-aparatuko patologiarene oinarriak azaltzen dira modu erakargarrian, eta eskuz egindako irudi anatomikoei artisauek ematen diote. Benetako kasu klinikoak endoskopien eta beste proba osagarri batzuen bidez aurkezten dira, ikaslea errealitateara hurbildu nahian.

Egilea:	Janire Prieto Elordui
ISBNa:	978-84-9082-867-0
Urtea:	2024
Tamaina:	20 x 28
Orrialdeak:	112
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


Zientziaren uretan



Liburu honetan jaso dira Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak Zientzia Kaieran blogean 2014. eta 2022. urteen artean argitaratutako artikuluen aukeraketa bat. Bederatzi jakintza arlotako dibulgazio-artikuluak aukeratu dira. Besteak beste, zientziaren historiako pasarteak, eguneroko elementuei buruzko edukiak edota interes orokorreko gai esanguratsuak bildu dira. Helburua da zientzia eskura izatea, eta zientziaren uretan ahalik eta jende gehien murgiltzea.

Egileak:	Uxune Martínez Mazaga, Elisabete Alberdi Celaya
ISBNa:	978-84-1319-610-7
Urtea:	2023
Tamaina:	15 x 21
Orrialdeak:	168
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €


Giza histologiari buruzko eskuliburua odontologiako ikasleentzat.



Histologia ehunen egitura eta haiek gure gorputzeko organoak eratzeke nola antolatzen diren aztertzen duen zientzia da. Osasun-zientzietako unibertsitate-gradu gehienetan oinarritzko diziplinetan prestakuntza ematea aurreikusita dago, Histologia, kasurako, eta arlo hau giza gorputzaren antolaketa eta funtzionamendua aztertzeaz arduratzen da. Testuinguru horretan sortu zen eskuliburu honen lehen edizioa, Odontologiako graduak egiten dituztenei zuzendua. Helburua gaiari buruzko oinarritzko informazioa argi eta zehatz aurkeztea zen.

Egileak:	Francisco José Sáez Crespo, Iker Badiola Etxaburu
ISBNa:	978-84-1319-516-2
Urtea:	2023. 2. edizioa
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	488
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	28 €

Zainketa intentsiboetako erizaintzako eskuliburu praktikoa



Ospitaleetako zerbitzu berezietako egonaldiake ahalik eta gehiena aprobetxatzearen garrantziaz eta zerbitzu horietako batzuen konplexutasunaz jabeturik, zenbait datu eta informazio idaztera animatu gara, etorkizuneko erizaintzat eta unitate berri batean sartu berri diren profesionalentzat baliagarria izango delakoan. Zainketa Intentsiboetako Erizaintzako eskuliburu praktikoa hau zainketa kritikoetako zerbitzuetae esperientzia handia duten erizaintza-profesionalek egin dute.

Egileak:	Gorka Vallejo de la Hoz, Irrintzi Fernández Aedo, Sendoa Ballesteros Peña
ISBNa:	978-84-1319-464-6
Urtea:	2022
Tamaina:	14 x 21
Orrialdeak:	388
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €

Espezialitate kirurgikoetako eskuliburua



Kirurgiari buruzko bigarren eskuliburu honetan, kirurgia orokorraren adar moduan hazi diren espezialitate kirurgikoak jorratu nahi izan dira. Jakintzaren eta teknologiaren etengabeko garapena gertatzen arin den egunotan ezin daiteke medikuntza, ezta kirurgia ere, alor mugatu edo estankotzat ulertu. Zentzu honetan eta medikuntza gero eta pertsonalizatuagoa den garai hauetan, espezialitate ezberdinen arteko elkarlana ezinbestekoa bilakatu da gaixo eta gaitz bakoitzari tratamendurik zehatzena emateko.

Editoreak:	Aitor de La Quintana Basarrate, Aingeru Sarriugarte Lasarte, Leire Agirre Etxabe
ISBNa:	978-84-1319-441-7
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	676
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €

Erizaintza klinikoa I



Erizaintzako titulazioaren arloetako bat Erizaintza Klinikoa izenekoa da eta horren barruan hainbat irakasgai daude, erizaintzako gaitasunak garatzeko garrantzi handia dutenak. Erizaintza Klinikoa I irakasgaien aztertzen dira kirurgiak nahiz eta sistema kardiobaskularreko gaixotasunek pertsona helduengan eragin ditzaketen prozesu fisiopatologikoak, diseinatzan dira pertsona horientzat simulatutako zainketa-planak eta plan horietatik eratorritako erizaintza-prozedurak praktikan jartzen dira.

Egileak:	Marijose Uranga Iturriotz, Beatriz Pereda Goikoetxea
ISBNa:	978-84-1319-449-3
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	464
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	7 €

Jarduera gimnastiko eta akrobatikoen oinarriak



Liburu honek gimnastikaren eta akrobaziaren motrizitate- eta kultura-aberastasunaren eta -konplexutasunaren berri ematen du, bien arteko harremana modu originalean landuz –ohiz kanpokoa delako–. Labur lantzen ditu terminoen eta erabileren bilakaera ulertzen laguntzen diguten elementu historikoak, eta funtsezko zenbait gertakari nabarmentzen ditu, hala nola gimnastikari buruzko lehenengo testuen idazketa, eta abar.


Egilea:	María Paz Brozas Polo
ISBNa:	978-84-1319-318-2
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	194
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Erizaintza zainketa aringarrietan eta bizitzaren amaieran



Egileak:	M.ª Belén Martínez Cruz, Manuela Monleón Just, Yedra Carretero Lanchas, M.ª Teresa García-Baquero Merino
ISBNa:	978-84-1319-048-8
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	344
Formatua:	Papera
Salneurria:	29 €

Daniels eta Worthingham-en muskulu-probak



Egileak:	Helen J. Hislop, Dale Avers, Marybeth Brown
ISBNa:	978-84-1319-233-8
Urtea:	2020
Tamaina:	21 x 28
Orrialdeak:	534
Formatua:	Papera
Salneurria:	69 €

Kirurgia orokorreko eskuliburua



Editoreak:	Aitor de la Quintana, Aingeru Sarriugarte, Leire Agirre
ISBNa:	978-84-1319-176-8
Urtea:	2020
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	528
Formatua:	Papera
Salneurria:	35 €

Erizaintza kirurgikoko eskuliburu praktikoa



Eskuliburu hau esku artean baduzu, bejondeizula! Esan nahi du Erizaintza Kirurgikoaren esparruan trebatu nahi duzula, zeina erizaintzaren arlo zirraragarria baita zalantzarik gabe. Arlo horretan, maila teknologiko altua aurkituko duzu, eta ezinbestekoa da kalitateko giza arreta. Paziente kirurgikoak, bere bizitzan, aldi kritiko bat igarotzen du, zeinak pazienteari berari eta haren inguruneari eragiten baitie eta non beldurrak eta antsietatea agerian baitaude prozesuaren beraren eta hark izan ditzakeen emaitzen ondorioz.

Koord.:	Irrintzi Fernández Aedo
ISBNa:	978-84-1319-131-7
Urtea:	2020
Tamaina:	10,5 x 17
Orrialdeak:	202
Formatua:	Papera
Salneurria:	10 €

Adineko pertsonen elikadurari buruzko gida praktikoa



Zahartze-tasak nabarmen egin du gora azken urteetan, bizi-itxaropenak gora egin eta arreta soziosanitarioa hobetu ahala. Mundu mailan, Espainia bosgarren dago 80 urteko edo gehiagoko biztanleriarik handiena duten herrialdeen zerrendan. Pertsona zaharrek arreta soziosanitario handia eskatzen duen biztanleria talde bat osatzen dute; arreta horrek zenbait esparru hartzen ditu barnean, hala nola nutrizio-arreta.

Egileak:	Zenbaiten artean
ISBNa:	978-84-1319-128-7
Urtea:	2020
Tamaina:	15 x 21
Orrialdeak:	90
Formatua:	Papera
Salneurria:	10 €


Oinarrizko immunologia. Immunitate-sistemaren funtzioak eta gaitzak



Oinarrizko immunologia lanaren edizio eguneratu honetan, immunologiarako sarrera argi eta moderno bat eskaintzen dute egileek; beraz, aukera egoki-egokia da lan hau gaur egungo ikasle beti lanpetuentzat. Esperientzia zabala dute egileek irakasle, ikastaro-zuzendari zein hizlari gisa, eta, horrenbestez, aproposak dira arlo konplexu hau ulertzeko behar den funtsezko informazioa destilatzeke. Kalitate handiko irudiak, kasu kliniko esanguratsuak eta idazkera zehatz eta argia konbinatzen du liburuak.

Egileak:	Abul K. Abbas, Andrew H. Lichtman, Shiv Pillai
ISBNa:	978-84-1319-099-0
Urtea:	2019
Tamaina:	20 x 24
Orrialdeak:	360
Formatua:	Papera
Salneurria:	42 €


Terminologia anatomica. Anatomiaren nazioarteko terminologia



Giza Anatomiaren arloko ezagutza mende askoan zehar garatu da, mundu zabaleko hainbat herrialdetako adituen ekarpenetatik. Aditu horien hizkuntzetatik ekarritako termino ugariak aberastasuna eman diote anatomiaren hizkuntzari, baina nahasmen nabaria sortu ere, bereziki sinonimoen, homonimoen eta eponimoen erabilerarengatik. Eragozpen hau gainditzeko xedez, Anatomisten Elkartearen Nazioarteko Federazioak (IFAA) bere gain hartu zuen nazioarteko lehendabiziko terminologia bateratua argitaratzeko ardura, latinezko *Nomina Anatomica* zelakoa, 1955. urtean.

Egileak:	Zenbait egile
ISBNa:	978-84-1319-093-8
Urtea:	2021
Tamaina:	20 x 27
Orrialdeak:	2019
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €


Giza histologia medikoa



Liburu hau Biomedikuntza arloko ikasle eta profesionaleri zuzenduta dago. Histologiak, jakintza-arlo moduan, ehunen egitura du aztergai eta nola antolatzen diren ehun horiek izaki bizidunak eratzeke. Liburu honetan, giza gorputzaren aparatu eta sistemetako organo bakoitzaren ehunen antolakuntza azaltzen da. Han, itxura eta forma morfologikoen deskribapenez haratago, beste jakintza-arlo batzuekin erlazioanetzen dira egitura histologikoak, hala nola Biologia, Fisiologia, Anatomia edota Patologiarekin.

Egileak:	Iker Badiola Etxaburu, Eurne Alonso Arana
ISBNa:	978-84-9082-976-9
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	268
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	12,50 €


Iktusa. Aro berri bat



Iktusa, haren prebalentzia eta ondorioak direla-eta, garrantzi handia duen gaixotasuna da, ez soilik osasungintzan, baita gizartean ere. Orain ez urte asko gaitz trataezina zen arren, aurrerapen izugarriak gertatu dira azken urteotan, iktus iskemikoaren alorrean bereziki. Errebaskularizaziorako tratamenduen agerpenak ezarri zuen lehenaren eta orainaren arteko muga, iktusari aurre egiteko itxaropena piztuz.

Egileak:	Maite Martinez Zabaleta, Amaia Muñoz Lopetegi
ISBNa:	978-84-9082-893-9
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	136
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	10,50 €


Botikak bide parenteraletik emateko gida praktikoa



Gida azkar honen helburua da erizaintzako ikasleei botikak behar bezala kudeatzen laguntzea praktika klinikoak egiten ari direnean. Orrialde bakoitza botika baten banakako deskribapenari dagokio, eta han jasotzen dira produktuen deskribapen labur bat eta haren indikazio nagusiak, merkatuko aurkezpen-forma parenteralak, emateko bideak eta moduak, prestatzeko modua eta hura modu seguruan erabiltzeko erizaintzako zainketak.

Egileak:	Sendoa Ballesteros Peña, Irrintzi Fernández Aedo
ISBNa:	978-84-9082-753-6
Urtea:	2017
Tamaina:	10,5 x 17
Orrialdeak:	120
Formatua:	Papera Papera
Salneurria:	5 €

2 motako diabetes mellitusa kudeatzeko gida praktikoa



2 motako diabetes mellitusa intsulinarekiko erresistentzia periferikoa eta, gerora, arearen zelulen disfuntzioa ezaugarri dituen asaldura metaboliko bat da. Intsulina-jarduera eraginkor bat ezinbestekoa denez zelulek glukosa barneratu dezaten eta energia bihur dezaten, odolean glukosa-maila handiak izatea eragiten du hormona horren eraginkortasunik ezak.

Egileak:	Zenbait egile
ISBNa:	978-84-9082-735-2
Urtea:	2017
Tamaina:	15 x 21
Orrialdeak:	72
Formatua:	
Salneurria:	10 €


Erizaintzako farmakologia orokorra eta klinikoa



Eskuliburu hau Erizaintzako Unibertsitate-Eskolako eta Euskal Herriko Unibertsitateko Erizaintzako Graduiko ikasleei zuzenduta dago, Farmakologia Klinikoa enborrezko irakasgaiari erabilia izateko. Irakasgai honen helburu nagusia ikasleek erizaintza-zerbitzuan botikak ematearekin loturiko gaitasuna lortzea da; horren bidez, ospitalean lan egin behar duten etorkizuneko erizainek eguneroko erabileran medikamentuen administrazio segurua lortuko da.

Egileak:	Laura Sáenz del Burgo Martínez, Cristina Burzos Cidón
ISBNa:	978-84-1319-376-2
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	178
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €

Garezurraren anatomia




Garezurra berebiziko garrantzia duen hezur-multzo berezia da, bereziki garunari euskarri eta babes ematen dion aldetik, baina baita arnasa eta elikagaia barneratzeko dugun sarbidea garezurrean delako eta ikusmenaren eta entzumenaren zentzumen bereziak ere buruan dauzkagulako. Garezurraren anatomiaren oinarrizko ezagutza osasungintzako edozein lanbidetan garrantzitsua bada ere, zenbait espezialitatek ezagutza zehatzagoa eskatzen dute

Egilea:	Jon Jatsu Azkue Barrenetxea
ISBNa:	978-84-9082-834-2
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	160
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

ZIENTZIA ZEHA TZAK ETA MATERIAREN AK

FISIKA ETA KIMIKA


Konposatu organikoen egitura-zehaztapeneko 200 problema



Jakina da egituren zehaztapena ikasteko modurik aproposena ariketen ebazpena dela. Liburu honen helburua da ikasleak ariketa bilduma zabal batez hornitzea, benetako eta kalitateko espektroen bidez Konposatu Organikoen Egituren Zehaztapenaren ikaskuntzan trebazeko, datu espektroskopikoetatik abiatuta. Beraz, liburua Kimikako Graduako ikasleei zuzenduta badago ere, Farmaziako, Biokimikako, eta Ingeniaritza ezberdinetako ikasleentzat ere oso erabilgarria izan daiteke.

Editoreak:	Gonzalo Blay Linares, José Ramón Pedro Linares
ISBNa:	978-84-1319-492-9
Urtea:	21 x 30
Tamaina:	2023
Orrialdeak:	294
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


Formulazioa eta nomenklatura kimikoa. IUPACen arauak eta ariketak



Izendatze eta formulazio kimikoa oinarritzkoa da kimika zientzietan eta berarekin erlazionatutako zientziaren beste adarretan diharduten komunitate zientifikoarentzat eta akademikoarentzat. Halere, haren garrantziak irismen zabalagoa du: funtsezkoa suertatzen da osasunarekin, segurtasunarekin eta jarduera komertzialekin erlazionatutako jardueretan eta haiek arautzen dituen nazioarteko legedia eraikitzeko orduan.

Egileak:	Garikoitz Beobide Pacheco, Efraim Reyes Martín, Oscar Castillo García, Uxue Urija Pujana, Sonia Pérez-Yáñez, Javier Cepeda Ruiz, Luisa Carrillo Fernández
ISBNa:	978-84-9082-999-8
Urtea:	21 x 30
Tamaina:	2019
Orrialdeak:	348
Formatua:	Papera
Salneurria:	35 €

Metodologia esperimentalak kimikan 3. edizioa



Testu hau Metodologia Esperimentalak Kimikan irakasgairako gida izatea nahi genuke. Kimika analitikoko eta Kimika fisikoko zenbait laborategi-praktika aurkituko dituzue orriotan. Lan esperimentalak nagusi bada ere, irakasgaiaren helburua ere bada datuak nola landu ikastea. Beraz, praktika bakoitzaren ondoren proposatzen diren ariketa eta galderetan datuen tratamendua landuko da.

Egileak:	Ane Bordagaray Eizaguirre, Agustín Etxeberria Lizarraga, Rosa García Arriola, Ainara Gredilla Altonaga, Miren Ostra Beldarrain
ISBNa:	978-84-9082-656-0
Urtea:	17 x 24
Tamaina:	2024
Orrialdeak:	166
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €

GEOLOGIA


Geologiaren oinarriak



Geologiaren aplikazio tradizional ezagunenak baliabide naturalen ikerketa eta ustiapena izan dira: petrolioak, mineralen meategiak eta lurpeko urak. Dena den, gaur egun, horiei gehitu behar zaie geologiak ingeniari-tza-obren planteamenduan, diseinuan eta eraikuntzan duen garrantzia. Izan ere, obra zibilei (errepideak, tunelak, urtegiak...) lotutako arazo asko saihestu daitezke oinarri geologikoaren ezagutza sendoarekin.

Egileak:	Miren Isasa Gabilondo, Nagore Insausti Irastorza
ISBNa:	978-84-9082-645-4
Urtea:	2024
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	170
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	30 €

Kartografia geologikoa: sarrera. 2. edizioa




Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak plazaratzen duen Kartografia Geologikoa: Sarrera liburuaren gaztelaniazko bertsioa handitutako eta zuzendutako 5. ediziora heldu da jada. Liburuak duen onarpena ikusirik euskarazko bertsioa argitaratzeko unea ere heldu dela iruditzen zaigu. Liburuarekin testu teoriko eta mapa geologiko batean iruditutako ariketa praktikoaren artean dagoen hutsunea betetzen saiatu gara.

Egileak:	Ramón Lluch, Rafael; Martínez Torres, Luis Miguel; Apraiz Atutxa, Arturo
ISBNa:	978-84-1319-459-2
Urtea:	2023
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	236
Formatua:	PAPERA
Salneurria:	12 €

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

ARKITEKTURA

Las Vegas ikasgai. Forma arkitektonikoaren sinbolismo ahaztua



Egileen ezagutza eta azterketa sakonak —egoki argudiatua, kontuan hartuz, batetik, estiloaren eta sinbolismoaren historia eta, bestetik, aurrera begira, abiadurari, mugikortasunari, autobide erraldoiei eta estilo aldakorrei erantzungo dieten eraikin mota berriak— arte-historiaren teoria guztiz bakana du emaitza, oso-oso gutxitan sortzen den zerbait. Ez dago historialaririk, ez arkitektozik gai izan denik orain arte arkitektura modernoaren eboluzio azkarrari antzemateko.

Egileak:	Robert Venturi, Denise Scott Brown, Steven Izenour
ISBNa:	978-84-9082-896-0
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	220
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

Irakaspen laburrak arkitektura modernoaren zenbait jatorri ulertzeko



Begien bistakoa da edozein joera estilistikori jarraitu diezaiokegula inaugurazio ofizialetik abiatuturik. Edozer *modus operandi* mamitzeko oreak hainbat osagai behar ditu. «Irakaspen labur» hauen bidez, arkitektura moderno izenez ezagutzen duguna sorrarazten duten jatorrietako batzuk azaltzen dira, zehaztasun apur batekin ulertarazten saiatzeko. Zernahi dogma edo planteamendu formaletatik aldendurik, esentziaren zati batean murgiltzeko aukera ematen digute.

Egilea:	Fernando Bajo Martínez de Murguía
ISBNa:	978-84-9082-776-5
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	88
Formatua:	Papera
Salneurria:	9 €

Auzo bizigarriak. Etxebizitzatik hirira
Livable Neighborhoods. From Home to City



Argitalpen honen bidez, UPV/EHUko Arkitektura Eskolako proiektuak IV ikasgaiko irakasleok gure lurraldeko auzoei buruzko gogoeta egin nahi izan dugu. Gure inguruan ez bezala, Europako hainbat herrialdetan askotariko auzo ereduak aurkitu ditzakegu, eta esperientzia horietako batzuk argitalpen honetan jaso nahi izan ditugu. Auzo horiek lurzorua aprobetxamendu egokia egiten dute, eta horrez gain, ingurune bizigarriago bat eskaintzen dute.

Koord:	Ezekiel Collantes Gabella
ISBNa:	978-84-1319-604-6
Urtea:	2023
Tamaina:	30 x 21
Orrialdeak:	275
Formatua:	Papera
Salneurria:	30 €

Zuretan bititzea. Zurezko zuzkidura-bizitokiak eraikitze gida



Euskadin, zuzkidura bizitokiak lehen sustapena mende honetako lehen hamarkadan egin zen. Zuzkidura-bizitokiak dituzten eraikinak bizitzeko eraikinak dira, baina ekipamendu (zuzkidura) edo azpiegitura gisa hartuta eta kontzeptualizatuta daude, eta ez dira bizitegi-erabilera hertsiko eraikinak. Euskadin, Lurzuari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak finkatu zuen, juridikoki, zuzkidura bizitokiak figura hori.

Egileak:	José Miguel Rico Martínez, Francisco González Quintial, Iñaki del Prim Gracia
ISBNa:	978-84-1319-508-7
Urtea:	2023
Tamaina:	15 x 21
Orrialdeak:	234
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

Arkitektura eta hirigintzako gidaliburua leku seguruak sortzeko



Segurtasunik ezaren pertzepzioa edo delituarekiko beldurra pertsona batek delitu baten biktima izateko duen beldurra edo izua da. Segurtasunik ezaren pertzepzioa oztopo psikologiko bat da, eta gure portaera mugatzeaz gain, hainbat eratako egoera emozionalak, jarrerak edo pertzepzioak eragiten ditu. Alderdi indibidualean, delituarekiko beldurrak berekin dakar askatasun pertsonalaren mugatzea, bakartze soziala eta konfiantza pertsonalik eza.

Egilea:	Ezekiel Collantes Gabella
ISBNa:	978-84-1319-351-9
Urtea:	2021
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	116
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

Landa etxebizitza Euskadin, oraina eta etorkizuna. 1. atala: azterketak



Behe Erdi Aroko lehenengo dorretxe eta baserrietatik XIX. mende amaierako bizitegi-ereduetaraino, landa etxebizitza tipologiai aldatuz joan dira historian zehar, garai historiko bakoitzaren beharretara egokituta. Lan honek aztergai ditu bizitegi-tipologia horiek, oraindik gure lurraldean dirautenak, gizartea jasangarritasun ekonomiko, energetiko eta funtzionalaren eredu berrietara egokitzeko diren bizitegi-ereduak eskatzen ari den une batean.

Egileak:	Ibon Telleria Julian, Daniel Luengas Carreño
ISBNa:	978-84-1319-354-0
Urtea:	2021
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	120
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak



Liburu honek oinarri duen tesia hiri-bazterreko paisaien izaeraren interpretazioari buruzko lan bat da. Ikerketak jorratu duen arazoa konbinazio bat da; batetik, paisaion izaera kontzeptualizatzeko ohiko irudikapen problematikoa edota generikoa legoke, eta, bestetik, paisaia-plangintza eta paisaien zaharberritze-prozedurentzat paisaiok behar bezala ezagutzen ez diren tokiak direnez gero, egiten den erronka legoke. Proposamenak oinarri teoriko konstruktibistak dituen tresna bat garatzen du eta hura frogatzeko Bilboaldeko hiri-bazter menditsuko paisaia-interpretazioa jorratzen du.

Egilea:	Maider Uriarte Idiazabal
ISBNa:	978-84-9082-702-4
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	226
Formatua:	Papera
Salneurria:	21 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	12,50 €

Git Bertsioak Kontrolatzeko Sistemarako eskuliburua



Informatikariek eta software-garatzailleek esfortzu izugarria eskaintzen diote kode-garapenari; hartara, ezinbesteko dute kodea txukun, garbi eta seguru garatzea ahalbidetuko dieten tresnak ezagutzea eta erabiltzea. Git software-bertsioak kontrolpean izateko sistemarik ezagunena eta erabiliena dugu egun, eta erabiltzen ikasteko praktika behar bada ere, etorkizunean ordainetan ematen dituen onurak eta abantailak oso nabariak dira.

Egileak:	Iñigo López Gazpio, Aitor Soroa Etxabe
ISBNa:	978-84-9082-670-6
Urtea:	2024
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	194
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13 €

Sareetan zehar dantzan Java erabiliz



Gauzen Internetek –Internet of Things (IoT)– izugarrizko bilakaera izan du azken urteotan. Egunerorabiltzen dugu sarean dagoen aplikazioaren bat, eta ezinbesteko tresna bihurtu da. IoT delakoaren aplikazioak ingurune banatueta egikaritzen dira, hau da, edozein tokitan eta sarearen bidez konektatuta dauden gailuetan; adibidez, sakelako telefonoetan, konputagailu pertsonaletan, sentsoreetan, tabletetan...

Egileak:	Iñaki Goirizelaia, Maider Huarte
ISBNa:	978-84-1319-286-4
Urtea:	2021
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	2021
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


SPSS eta R Commander. Ikerketa ez-esperimentaletako datuen analisia



Testuliburu honen helburua ikerketa ez-esperimentalen datuak aztertzeko maiztasun handiz erabiltzen diren analisi-prozedurak eta adierazpen grafikoak aurkeztea da. Testuarekin lortu nahi dena da ikerketaren eremuan hasi berriak diren pertsonak, analisi egokia aukeratu, SPSS edo R Commander programa estatistikoa erabiliz analisia burutu, egoki interpretatu eta emaitzak idatz ditzaten.

Egileak:	Arantxa Gorostiaga, Jone Aliri, Nerea Lertxundi, Nekane Balluerka, Ana I. Vergara
ISBNa:	978-84-9082-866-3
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	196
Formatua:	Papera
Salneurria:	17 €

Adierazpen grafikoa. Sistema diedrikoko eta akotatuko ariketa ebatziak.
Expresión gráfica. Ejercicios resueltos en el sistema diédrico y en el sistema acotado



Liburu honek ebatzitako ariketen bilduma zabala eskaintzen du, bai Sistema Diedrikoan, bai Plano Akotatuaren Sistematan. UPV/EHuko Bilboko Ingeniaritza Eskolako Adierazpen Grafikoaren arloko eskola eta azterketetarako sortu dituzte egileek. Ariketak kontu handiz aukeratu dira, geometria deskriptiboaren printzipioak irakasteko eta espazio-ikuspegia garatzeko duten eraginkortasunagatik.

Egileak:	Irantzu Álvarez González, María José García López
ISBNa:	978-84-9082-820-5
Urtea:	2024
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	148
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


Adierazpen grafikoa Ingeniaritza Zibilean. Plano akotatuaren sistema



Eskuliburu hau Ingeniaritza Zibileko Graduako ikasleentzat pentsatuta dago, baina baliagarria izan daiteke lurrazalaren irudikapenarekin erlazionatuta dauden ingeniariartzako gradu guztietan, hala nola, Arkitekturan, Geologian edo Meatzaritzan. Eskuliburuan, Ingeniaritza Zibilearekin erlazionatutako elementuak Sistema Akotatuaren bidez grafikoki irudikatzeko beharrezkoak diren kontzeptu guztiak lantzen dira.

Egileak:	Irantzu Álvarez González, María José García López
ISBNa:	978-84-1319-527-8
Urtea:	2023
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	132
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

Adierazpen grafikoa Ingeniaritza Zibilean. Sistema diedrikoa



Eskuliburu honetan Ingeniaritza Zibilearekin erlazionatutako elementuak Sistema Diedrikoaren bidez grafikoki irudikatzeko beharrezkoak diren kontzeptu guztiak lantzen dira. Eskuliburuaren amaieran, 30 ariketa aurkezten dira, teorian aldeztu aurretik teoriarik garatutako kontzeptu guztiak aplikatzeko. Ariketa bakoitzak bere enuntziatua eta soluzioa ditu, bai eta ebazteko behar diren azalpenak ere.

Egileak:	Irantzu Álvarez González, María José García López
ISBNa:	978-84-1319-520-9
Urtea:	2023
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	214
Formatua:	Papera
Salneurria:	24 €


Kalitatearen kudeaketa. Oinarrizko teoria



Hainbat aktibitate, zerbitzu edo produkturen deskribapenean agertzen den hitza da kalitatea. Hainbat definizio aurkitu ditzakegu: ISO 8402 arauaren arabera, kalitatea zera da: «gauza baten ezaugarri guztiak zeinek behar inplizitu zein esplizituak betetzeko gaitasuna ematen baitiote». DIN arauak honela definitzen du kalitatea: «merkatuak eskatzen dituen eskakizunak betetzeko egokiak diren produktu baten propietate eta ezaugarri guztien multzoa».

Egileak:	Alazne Gutiérrez-Lorenzo, Maider Amutio Izaguirre eta Roberto Palos Urrutia
ISBNa:	978-84-1319-429-5
Urtea:	2022
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	144
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €

Errepideak. I. liburukia: Bide-sarea eta trafikoa



Liburuki honetan errepide-sareen ezaugarriak, ibilgailuen zirkulazioaren analisia eta bide-plangintza aztertzen dira. Lehenbizi, bide-sistema antolatzen duten oinarriak azaltzen dira, bai errepideen sailkapenen eta erabileraren ikuspuntutik bai erabiltzaileen ikuspuntutik, gidariak eta oinezkoak barne. Ondoren, ibilgailuen trafikoaren funtzionamendua, zirkulazioan parte hartzen duten magnitude nagusiak eta trafiko-azterlanetan erabilgaitako prozedura deskribatzen dira.

Egilea:	Heriberto Pérez Acebo
ISBNa:	978-84-1319-136-2
Urtea:	2020
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	400
Formatua:	Papera
Salneurria:	32 €


Komunikazio optikoetako sistemak



Informazioaren teknologietan erabilgaitako zuntz optiko bidezko komunikazio-sistemak lantzen ditu testuliburu honek. Hainbat urtetan erabili eta landutako eskola-apunteen bilketa eta orrazketaren emaitza da testuliburu honen argitalpena. Han aurkeztutako materiala nagusiki telekomunikazioaren ingeniartzako ikasleei zuzendurik badago ere, arloko profesionalak ere erabil dezakete kontsulta-tresna azkar gisa. Edukiari dagokionez, testuliburu honek komunikazio optikoen gaiari ikuspuntu teorikotik zein praktikotik heltzen dio.

Egileak:	Gotzon Aldabaldetrekua Etxeberria, Gaizka Durana Apaolaza
ISBNa:	978-84-1319-028-0
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	212
Formatua:	Papera
Salneurria:	13 €


Ekuazio diferentzialak erabiliz modelatzen diren ingeniartzako fenomenoak. Mathematica programaren bidezko ebazpena



Eredu matematiko bat sistema edo gertakari bat deskribatzeko balio duen tresna da. Zientzia, ingeniartza, ekonomia, eta abar esparrutan gertatzen diren fenomenoak deskribatzeko eredu matematiko bat erabiltzen denean ohikoa da ekuazio diferentzialak agertzea. Ekuazio diferentzialetan funtzio ezezagun baten deribatuak agertzen dira, eta helburua izaten da ekuazioa betetzen duen funtzioa aurkitzea.

Egileak:	González Gómez, María Josefa; Alberdi Celaya, Elisabete
ISBNa:	978-84-1319-067-9
Urtea:	2019
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	294
Formatua:	Papera
Salneurria:	19 €


Errepide-ingeniartza



Pertsonen eta ondasunen mugikortasunaren inguruko gizarte-beharrak asetzeko beharrezkoak diren ezaguera, gaitasun, trebetasun, jardute profesional, printzipio eta balioen multzoari garraio- eta bide-ingeniartza deritzo. Informatika eta material berriei esker, garapen etengabea duen ingeniartzaren adarrik zaharrenetarikotzat jo dezakegu. Gaur egun ezinbestekoak dira azpiegiturak, zerren errepideak, trenbideak eta portuak baitira gure komunikazioa bermatzen dutenak.

Egileak:	Itziar Gurrutxaga, Gurrutxaga, Mikel Iturrate Mendietia, Usue Osés Orbegoiz
ISBNa:	978-84-9082-819-9
Urtea:	2018
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	296
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €


Elektronika eta kontrol-sistemak. Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniartzako Gradua. 2. maila



Liburu honetan Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniartzako graduako Elektronika eta Kontrol-sistemak irakasgaiaren programa jorratzen da. Beraz, liburuak, irakaskai horren dozentziarako, zein beste ingeniartzetarako baliagarria izatea du helburu, elektronika eta kontrol-sistemen oinarritzko azalpenak eta gaiak agertuz. Liburua bi zati ezberdinetan banatu da: teoria, batetik, eta laborategiko praktikak, bestetik.

Egileak:	Oihane Abarrategui, Ranero, Aritz Iturregi Aio
ISBNa:	978-84-9082-503-7
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	166
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €


Kalkulua. Ariketa ebaztiak



Eskuan duzun liburua Kalkulua irakasgaiari dagozkion ariketa ebaztien liburua da. Liburua Donostiako Informatika Fakultateko ikasketetan irakasten den izen bereko irakasgaiari oinarrituta dago; hala ere, beste zientzietan izen berarekin edo beste batekin irakasten diren antzeko irakasgaietarako ere egokia izan daitekeela uste dugu; izan ere, Kalkulua irakasgaiaren jarraipena da eta liburu honetan ebazten diren ariketak Analisi Matematikoko kontzeptu klasiko zabalei dagozkie.

Egilea:	Patxi Angulo Martín
ISBNa:	978-84-9082-777-2
Urtea:	2018
Tamaina:	21 x 30
Orrialdeak:	300
Formatua:	Papera
Salneurria:	23,50 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	13 €

Algebra lineala ondo egina



Algebra linealeko testuliburu hau Matematikako graduako zein graduondoko ikasleei zuzendua dago. Liburu honetan hartutako hurbilketa berritzailean, amaierarako utzi dira determinanteak; arretagunea algebra linealaren xede nagusian jarri da: dimentsio finitua duten bektore-espazioetako eragile linealen egitura ulertzea. Egileak ohi baino arreta handiagoa jarri du kontzeptuak nondik datozen azaltzen eta frogak sinplifikatzen.

Egilea:	Sheldon Axler
ISBNa:	978-84-9082-623-2
Urtea:	2017
Tamaina:	17 x 24
Orrialdeak:	354
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €

EUSKAL LITERATURA SAILA

Euskal Literatura Saila euskal literaturaz euskaraz egindako ikerlanak argitaratzeko asmoz jaio zen. Arlo horren ikerketan izandako oinarriak plazaratu nahi ditu. Ikuspegi zabala defendatzen du. Metodologia desberdinetan osaturiko lanak onartzen ditu, eta bere ibilbidean arlo desberdinak babestu ditu: literaturaren soziologia, euskal literatura garaikidearen historia, ahozko literatura, egile jakin bati edo itzulpenari buruzko liburuak aztertzen dituen ikerketa.

Euskal Literaturari buruzko ikerlanak babesgune berezia eta zaindua du Euskal Literatura Sailean. Serie honetan agerturiko liburu batzuek Euskadi Literatura Saria lortu dute.


29. Egungo euskal mikrofikzioa



Mikrofikzioa garaiko literatur genero esanguratsua dugu. Fernando Valls irakasleak liburu honetan gogoratzen duenez, «Laburra izatea ezinbesteko ezaugarria da, egituraren zehaztasun eta laburtasun zorrotzenaren ondorioa. Genero literario guztietan erabiltzen den elipsia mikrokontakizunean muturrera eramaten da». Horrek irakurlearen arreta eskatzen du. Liburu honek gai hartu ditu kontutan. Alde batetik Mikroipuinak, eta garaiko idazlerik entzutetsuenak hartu ditu hizpide.

Editoreak:	Mari Mar Boillos eta Jon Kortazar
ISBNa:	978-84-1319-695-4
Urtea:	13,5 x 21,5
Tamaina:	2025
Orrialdeak:	224
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

28. Ahotsak gorpuztuz. Euskal emakumezkoen literatura (1970-1985)



2018 eta 2022 urteen bitartean egoera nabarmen bik aldatu zuten euskal literaturaren panorama. Bost deialdiko epe horretan euskal emakume idazleek lau aldiz irabazi zuten sorkuntzako Euskadi Saria: Eider Rodriguezek, Irati Elorrietak, Karmele Jaiok eta Uxue Apaolazak. Era berean eta garai berean eragina sariatatik itzulpenetara zabaldu zen, eta egile horien kontakizun lanek zein Katixa Agirrerenak, gazteleraz ere arrakasta lortu zuten.

Editoreak:	Kortazar Uriarte, Jon; Rodríguez Miñambres, Paloma
ISBNa:	978-84-9860-964-6
Urtea:	13,5 x 21,5
Tamaina:	2025
Orrialdeak:	168
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


27. Begirada literarioak iraganari. 36ko Gerraren irudikapenak euskal eleberrigintzan



Euskal eleberrigintzaren historian gai kanonikoa izan da 1936ko Gerra, batez ere 90eko hamarkadatik gaur eguneraino; alabaina, hari buruzko diskurto literarioak aldatuz joan dira urteetan zehar. Unean uneko imaginario kolektiboaren eta memoria-politiken eraginak nabari dira, eta euskal literatur sistemaren joerek ere ekarri dituzte aldaketak gertakari hura irudikatzeko moduetan. Liburu honek gerrari buruzko narrazioetako erdiguneko eta ertzetako ikuspegiak azaleratzea du helburutzat.

Egilea:	Amaia Serrano Mariezcurrana
ISBNa:	978-84-9082-675-1
Urtea:	13,5 x 21,5
Tamaina:	2024
Orrialdeak:	272
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €


26. Harkaitz Cano eta gaur egungo euskal literatura sistema



Euskal sistema literarioa sistema aula da, baina azken urteetan inguruan ditugun eta hizkuntza handiak baliatzen dituzten sistemek izandako garapenaren antzeko eboluzioa lortu du literatura-testuen moldeen, gaien edo generoen alderdian. Hori argitzeko, liburu honek euskal sistema literarioa aztertzen du ikuspegi zabal bat baliatuz. Lehen atalean azterketa egiteko metodologia azaltzen da. Ondoren, euskal sistema literarioa eta haren egiturak aztertzen dira. Eta azkenekoan, Harkaitz Canoren ibilbide literarioaren alderdi nagusiak aztertzen dira.

Egilea:	Aiora Sampedro Alegria
ISBNa:	978-84-1319-609-1
Urtea:	13,5 x 21,5
Tamaina:	2023
Orrialdeak:	192
Formatua:	Papera
Salneurria:	16 €

25. Xabier Lete. Bertsorik sakonena



Berebaitaturik dago ume kozkor bat Oiartzungo plazan Xalbadorren bertso batzuk entzuten. Jendetza bildu da, eta sekulako errespetuz entzuten dute denek. Afaldu aurretik lekuonatarrenean izan da, Tiburtzik kantatutako bertso zaharrez gozatzen. Urteak joan dira, eta ahozketasunaren putzutik edatearen poderioz iturri bihurtu da Lete, eta orain bera da bertsoak idazten diharduena. Azken hatsarekin kantatu du Xalbadorrek bere bertsorik sakonena, eta Letek agur eresi bat idazteko bulkada sentitu du. Handik egun batzuetara agertu da plazara, gitarra eskutan.

Egilea:	Jon Martin Etxebeste
ISBNa:	978-84-1319-598-8
Urtea:	2023
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	228
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €

24. Lauaxetaren pentsamendua eta jarduera



Lauaxeta euskal poeta ezaguna eta estimatua da. Oraindik bere nortasuna erdi-ilun geratzen zaigu: hala nola heriotza-zigorreraino eraman zuten bere militantzia erlijioso eta politikoaren oinarria, adarkadura eta lotura. Poeta izateaz gain, Lauaxeta kazetaria eta mitinlari ere izan zen: «Olerkarija barik Jeltzale benetakua nazala atseginduko nau». Aberria eta euskara, gizarte-arazoak eta erlijiositatea izan zitzaizkion Lauaxetari enbor bakar baten elkarrekin guztiz inplikaturako bizitzaren ardatzak.

Egilea:	Sebastian Gartzia Trujillo
ISBNa:	978-84-1319-484-4
Urtea:	2022
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	332
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €


23. Egungo euskal literatura eta futbola II



Mens sana in corpore sano erromatar garaietatik datorkigun esaera zaharra Juvenalen poema satiriko batetik aterata dago. Garai hartako erromatar kulturak balio handia ematen zion heziketa intelektualari, espiritualari eta, dudarik gabe, gorputz heziketari. Planteamendu honen atzean dagoen filosofiak erakusten du geure gorputza aberastu behar dugula, baina baita geure burua ere. Eta zergatik ez dugu aldi berean egiten? Hori da *Egungo euskal literatura eta futbola* obraren bigarren ale honen helburua.

Editoreak:	Mari Mar Boillos, Jon Kortazar
ISBNa:	978-84-1319-468-4
Urtea:	2022
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	160
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

22. Egungo euskal krimen-literatura



XIX. mendearen erdi aldean sortua izan arren, polizia- eta krimen-literaturak ez du gaurkotasunik ez osperik galdu. Hain zuzen ere, bere burua etengabe berritzen jakin duelako, hasierako enigma nobelagintzatik «eleberri beltza» izenez ezagutzen dugunaren askotariko aldaeretara, eta are herrialdean herrialdeko ezaugarri berezietara. Euskal Herrian ere landu da generoa, hainbat bidetatik, eta horren erakusgarri izan nahi du lan honek.

Editoreak:	José Manuel López Gaseni, Jon Kortazar Uriarte
ISBNa:	978-84-1319-338-0
Urtea:	2021
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	322
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

21. Egungo euskal literatura eta futbola



Literatura eta futbola bi errealtate kontrajarriztat har badaitezke ere, asko dira baieztapen horrek errealtatearekin zerikusirik ez duela erakusten diguten adibideak. Athletic Club Fundazioak «Letrak eta Futbola» ekitaldiaren inguruan urtero egiten dituen ekimenek agerian uzten dute ez direla bi mundu desberdin, elkarrekin bizi direla eta elkarri esateko asko dutela (www.letراسyfutbol.com).

Editoreak:	Mari Mar Boillos, Jon Kortazar
ISBNa:	978-84-1319-281-9
Urtea:	2020
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	220
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €

20. Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai



Bete-beteen asmatzen dutenean, abestiek, liburuek, koadroek, pelikulek, bertsoek... gu liluratzeko ahalmen ikaragarria dute. Instant batean gertatzen da, beren sarean kateatuta gelditzen gara, baina hori icerbegaren punta baino ez da. Liluraren oinarriak ikusezinak dira gehienetan. Gustua eraiki egiten da/digute/dugu, ertz asko dituen prozesu konplexu batean. Beraz, kultura globalizatuaren garaian ba al dago erraldoia ez denarentzat tokirik? Badago, bai.

Egileak:	Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi, José Alfredo Retortillo
ISBNa:	978-84-1319-078-5
Urtea:	2019
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	196
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €


19. Identitatearen eraldatzea subjektu literario postmodernoan



Liburuak testuinguru literarioan subjektu postmodernoak dituen agerpena, ezaugarriak eta aldaerak azaltzen ditu eta horrek garamatza baieztatzen subjektu narratiboek jasaten duten identitatearen krisiak bat egiten duela mendebaldeko gizarteetako kulturaren postmodernitateak eragiten duen desoreka identitarioarekin. Zenbait narrazio liburutan horren berri eman dugu, hau da, subjektu postmodernoaren zenbait eredu aztertuta ditugu.

Egileak:	Iratxe Etxepare Martín
ISBNa:	978-84-1319-065-5
Urtea:	2019
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	208
Formatua:	Papera
Salneurria:	16 €

18. Herri kontakizunak Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa



Liburu honen oinarria Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan euskaraz egindako ahozko literaturako kontakizunen bilketa lana da. Kontakizun horiek aztertu eta sailkatzean, zati handi bat irri ixtorioek osatzen zutela konturatuta, irri ixtorio horien ezaugarrietan sakondu da: egitura, gaiak, beste hizkuntza batzuetan horiei buruz egindako azterketak... Irri ixtorioez gain, leiendak, ipuin miresgarriak, txisteak... ere jaso dira.

Egilea:	Maialen Moreno Zubeldia
ISBNa:	978-84-9082-809-0
Urtea:	2018
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	408
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	7 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	7 €


17. Egungo euskal komikiaren historia



Euskal komikiaren historia literario bat osatzeko bidean, lehen urratsa da egitasmo hau, komikigintzara hurbiltzeko begirada jakin bat jorratu baita ibilbide historikoa osatzera: begirada literarioa eta begirada linguistikoa. Horretarako, bi atal nagusi bereizi dira: lehenik, euskal komikiaren joera eta plataforma nagusiak aurkeztu dira, interpretazio historiko-literarioan zoko lehen urratsak emateko; bigarrenik, zenbait komiki-liburu xeheago aztertu dira.

Egilea:	Iratxe Retolaza Gutiérrez (alearen arduraduna)
ISBNa:	978-84-9082-629-4
Urtea:	2017
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	354
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €

16. Mendi literatura



Zentzu zabalean, mendiaz diharduen literaturari deritzo mendi literatura; zentzu hertsia goan, mendizaleen literaturari. Ikerlan honetan, munduan eta Euskal Herrian generoak izan duen bilakabidea aztertzen da. Menditik pasatu dira profetak, Antzinatean, jainkoen bizilekutik jaitsita errebelaziozko mezua zabaltzeko; naturalistak, Errenazimentuan eta Ilustrazioan batez ere, natura ezagutu eta deskribatzeko.

Egilea:	Haritz Monreal Zarraonandia
ISBNa:	978-84-9082-542-6
Urtea:	2017
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	584
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €


ZIO BILDUMA.

Zientzia Irakurle Ororentzat

ZIO bildumak gaur egungo jakintza zientifikoa plazaratzen duten askotariko saiakera eder eta irakurgarriak eskaintzen ditu euskaraturik. Izan ere, batera isurtzen dira zientziaren eta literaturaren urak, denaren eta garenaren zioak bilatzeko saio atergabea baita haien jarduna. Ezagutzaren ur ederrak euskaraz gozatzeko aukera ematen dio ZIO bildumak irakurle egarrituari. Goi-mailako dibulgazioko liburuz osatua da ZIO bilduma. Atseginak dira irakurtzeko; arrakasta eta miresmena berenganatu dute beste hizkuntzetako irakurleen artean, eta aditua ez den baina egungo ezagutza zientifikoaren berri jakin nahi duen irakurleari zuzenduta daude.

Gaur egungo zientzia-jakintzaren erakusgarri diren irakurgai bikainenak euskaraz ematea da ZIO bildumaren helburu nagusia. Horretaz gainera, euskal prosa zientifikorako idazkera-ereduak landu nahi ditu, zientzialarien eta irakurleen arteko harremana errazteko zubi egokia direlakoan dibulgazio-lanok.


24. Osasun Bakarra, jomuga eskuraezina



Mikroorganismoak nonahi daude, eta gizakiarekin duten erlazioan, nahiz eta gehienak lagunak izan, badira batzuk patogeno edo etsai direnak. COVID-19aren pandemiari esker berriro baieztatu dugu mikroorganismoen mehatxu erreala infekzio emergenteen sorreran. Saguzarretatik etorritako mikroorganismoak nazioartean osasun publikoko larrialdiak sorrarazteko mehatxuak dira, baina karraskariak, eltxoak, akainak edo permafrosta ere begi-bistan izan behar ditugu.

Egilea:	Miren Basaras
ISBNa:	978-84-9082-717-8
Urtea:	2024
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	172
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €

23. Geneak editatzen



Edizio genetikoa indarrez sartu da laborategietan zein gizartean, bereziki CRISPR tresnak agertu zirenetik. Hainbat aplikazio aurkitu zaizkie biologian, osasun-arloan eta bioteknologian. Liburu honek oinarritzko informazio eskurakoa eskaini nahi du edizio genetikoaz eta CRISPR teknologia berritzaileaz. Metodoaren abantailak nahiz mugak edo arazo ebatzi gabeak nabarmentzen ditu, teknologia-iraultza honetatik espero litekeenaz ikuspegi zintzo eta errealista bat eskaini nahian.

Egilea:	Lluís Montoliu
ISBNa:	978-84-1319-570-4
Urtea:	2023
Tamaina:	13,5 x 21,5
Orrialdeak:	520
Formatua:	Papera
Salneurria:	26 €


22. Tutik ere ez dakigu. Unibertso ezezagunerako gida bat



Gizadiak mundu fisikoari buruz duen ezagutza hutsunez beterik dago. Ez dira horiek, alabaina, hutsune txikitxo batzuk, hola-hola ez ikusi egitekoak, baizik eta izugarritzko leize hondogabeak munduaren funtzionamenduari buruzko gure ideia oinarri-oinarrizkoetan. Jorge Cham komikilariak eta Daniel Whiteson partikula-fisikariak elkar harturik ekin diote unibertsoari buruz ez dakigun hori guztia arakatzeari: kosmosaren ezezagueran ditugun zulo itzelak, alegia.

Egileak:	Jorge Cham, Daniel Whiteson
ISBNa:	978-84-1319-347-2
Urtea:	2021
Tamaina:	15 x 23
Orrialdeak:	504
Formatua:	Papera
Salneurria:	22 €


21. Mikrobiologiaren mundu liluragarria



Liburu honen helburua mikrobioen mundua desmitifikatzea da. Jakina da kaleko jendeak informazio okerra izaten duela sarritan mikrobioez, irudi desitxuratu eta aurreiritziz betea. Oro har, mikrobioak gauza negatiboekin lotzen ditugu, eta ez gara jabetzen mikrobio gehienak ez direla kaltegarriak; kontrara, horietako asko onuragarriak ere badira. Beraz, mikrobioen mundua hobeto ezagutzera eman nahi genuke liburu honen bidez.

Egilea:	Josu Albero
ISBNa:	978-84-1319-082-2
Urtea:	2019
Tamaina:	15 x 23
Orrialdeak:	184
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €

20. Zientziaren historia txiki bat



Zientziaren esparrua bezain zabala dugu kontagai hau, eta zientziaren ibilbidea bezain luzea: gauzak zenbatzeari eta zeruak arakatzeari ekin zioten antzinako jakintsuetatik hasi, eta galaxien sakona aztertzen eta ordenagailu kuantikoak apailatzen ari diren espezialistetaraino. Infinituki txiki denaren eta baztergabe handi denaren arteko zer guztiak ditu ikergai zientziak, natura nola antolatuturik dagoen jakiteko ahalegin etengabea.


Egilea:	William F. Bynum
ISBNa:	978-84-9082-945-5
Urtea:	2018
Tamaina:	15 x 23
Orrialdeak:	392
Formatua:	Papera
Salneurria:	15 €

LIMES BILDUMA

“Mugatu den oro agortu egiten da bere mugatasunean. Mugatu den oro desegiten da bere mugarik ezean. Mugartekoa, ostera, infinitu eta askotarikoa da. Limes bildumak mugartekoa izan nahi du, mugaz bi aldeetatik isurtzen diren urak edaten dituen iturria bezala: pentsamenduaren eta literaturaren berri eman, literaturaren bidez pentsamendua azaldu duten ahots desberdinei lekua eskainiz”.

Bildumako lema dioen moduan, literatura-baliabideen bidez beren pentsamendua azaldu duten zenbait autoreren obrak euskaratzea da Limes egitasmoaren helburua. Hori dela eta, pentsamendu horren berri emateko garai, hizkuntza, diziplina eta ikuspuntu askotariko autoreak biltzen saiatzen gara; jatorrizko hizkuntzatik itzuli eta luzera neurtuko liburuak burutuz. Horretarako, liburuak irakurleari azaldu behar zaizkionez, testua eta autorea aukeratu ondoren, aditu batek edizio horretarako berari azaldu eginiko hitzaurreaz osatzen da liburu bakoitza, obraren testuingurua, garaia, diziplina, pentsamendua eta gaurkotasuna eskainiz.


30 · Dohaintzari buruzko saiakeraren lorratzean



Alde batetik, ondorio nolabait ere arkeologikoak aterako ditugu inguruan edo gure aurretik izan di-tugun gizarteetako giza transakzioen izaerari bu-ruz. Era berean, deskribatuko dugu zer truke- eta kontratu-fenomeno izan dituzten merkatu ekono-mikorik gabeak izan ez arren —gure ustean, eza-gutzen ditugun gizarte guztietan ageri den giza fe-nomeno bat baita merkatua— gurea ez bezalako truke-erregimena duten gizarteetan.

Egileak:	Mauss eta Lévi-Strauss
ISBNa:	978-84-1319-710-4
Urtea:	2025
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	506
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €


29 · Quaderni del carcereren antologia II



Beharrezkoa da oso zabaldurik dagoen aurreiritzi orokor bat suntsitzea, alegia, oso zaila dela filosofia, zientzialari espezializatuen edo filosofo profesional eta sistematikoen kategoria jakin baten jarduera intelektuala izateagatik. Beraz, alde aurretik frogatu behar da gizaki guztiak direla «filosofoak», eta, horretarako, definitu egin behar dira «berezko filosofia» horren mugak; hau da: hizkuntzan bertan jasotako filosofia, zentzu komunean eta sen onean jasotako filosofia, eta herri-erlijioan sortzen diren sinesmenean jasotakoa.

Egileak:	Antonio Gramsci
ISBNa:	978-84-1319-600-8
Urtea:	2023
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	400
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €


28 · Quaderni del carcere en antologia I



Quaderni del carcere Antonio Gramscik 1937an hil zenean utzitako testu-bilduma nabarmen bat da. Hainbat formatutako 33 koaderno eskolastiko dira, 1929 eta 1935 artean sortuak. Kartzelan idatzi zituen, baldintza kaskarretan; izan ere, liburu eta aldizkari gutxi zituen eskura, eta etengabeak ziren espetxe-agintarien konfiskatze-mehatuak. Koadernootan, Italiaren historiari buruzko ikerketa zabal baten inguruabarrak eman zituen Gramscik, Europako eta munduko historiaren esparruan eta hainbatetan birformulatu eta egokitutako lan-planetatik abiatuak.

Egilea:	Antonio Gramsci
ISBNa:	978-84-1319-486-8
Urtea:	2022
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	444
Formatua:	Papera
Salneurria:	28 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €


27 · Utilitarismoa



Utilitarismoa 1861ean argitaratu zen, atalka, merkeago eta eskuragarriago izan zedin, eta 1863an liburu moduan. Korrontearen inguruan zeuden gaizki-ulertuak desegin eta teoriaren oinarriak modu argian azaltzeko idatzi zuen John Stuart Millek. Helburu horrekin utilitatearen printzipioa azpimarratzen du: ekintzak zuzenak izango dira ahalik eta jende gehienaren zoriona edo ongizatea bultzatzen duten heinean, hau da, mina leundu eta plazera handitzen duten neurrian; okerrak, aitzitik, sufrimendua eta zoritxarra eragiten badute.

Egilea:	John Stuart Mill
ISBNa:	978-84-1319-371-7
Urtea:	2021
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	192
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €


26 · Robespierren lan hautatuak



Maximilien Robespierre Frantziako Iraultzaren garai erradikalenaren eragile nagusietakoa izan zen, Terrorrearen garaia, hau da, askatasuna eta berdintasuna defendatzearen herriaren izenean egindako diktadurarena. Robespierren pentsaera politikoaren muinean, borondate orokorraren kontzeptua dago, Rousseauk Gizarte Hitzarmenean definitzen duen gisan: herriaren borondatea ona da definizioz, nahiz eta balitekeen herriak huts egitea zer interes dituen erabakitzean.

Egilea:	Maximilien Robespierre
ISBNa:	978-84-1319-241-3
Urtea:	2020
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	386
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €


25 · Florentziako gobernuaz solasean



Francesco Guicciardini (Florentzia 1483, martxoak 6 - Arcetri 1540, maiatzak 22) Italiako bizitza politiko zalapartatsu eta konplexuaren protagonista izan zen XVI. mendearen lehen erdian, batez ere Medici familia indartsuaren baitan eta zerbitzuan buruturiko lan politikoagatik. Humanitate eta Zuzenbide ikasketez jantzia, Europak garai hartan izandako pentsalari politiko inportanteenetarikotzat jotzen da bere idatzietan aurkitzen dugun “modernotasunagatik”.

Egilea:	Francesco Guicciardini
ISBNa:	978-84-1319-069-3
Urtea:	2019
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	392
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €

24 · Saio politiko eta ekonomiko hautatuak




Gobernu guztietan izaten da barne-lehia, agerikoa edo sekretua, autoritatearen eta askatasunaren artean, eta ez bata ez bestea ez dira inoiz erabat nagusitzen lehia horretan. Askatasunaren sakrifizio handia egin behar da nahitaez gobernu orotan, baina autoritatea ere, askatasuna mugatu arren, inoiz ezin da izan -edo, beharbada, ezein konstituziotan ez luke izan behar- erabatekoa eta kontrolaezina (Gobernuaren jatorriaz saioan).

Egilea:	David Hume
ISBNa:	978-84-9082-771-0
Urtea:	2017
Tamaina:	13 x 21
Orrialdeak:	530
Formatua:	Papera
Salneurria:	25 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €
Formatua:	ePub
Salneurria:	6 €

LEGEAK-LEYES BILDUMA

Eusko Jaurilaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (zehazki Zuzenbide Fakultateko mintegi juridikoak, zeinak jarduera gutxi gorabehera etengabea egiten baitzuen 90eko hamarkadaren hasieratik) hitzarmen bat sinatu zuten, Gorte Nagusietan onartutako legezko testu oinarrizkoak euskarara itzultzeko. Konpromiso horren emaitza gisa, Espainiako Konstituzioaren itzulpena izan zen lehenengo ekarpen nekeza, eta horren ostean hainbat diziplinako beste testu batzuk itzuli zituzten. Horiek guztiek osatzen dute Legeak-Leyes bilduma. Lan guztietan nabarmentzekoak dira zorroztasuna eta bikaintasuna, bai hizkuntzaren arloan, baita arlo juridikoan ere. Eta lan horretara bideratu dituzte denbora eta ezagutza hizkuntzalari onenek eta Zuzenbideko arlo bakoitzeko irakasle gaituenek.


28 · Espainiako Konstituzioa. 2. edizioa eguneratua Constitución Española. 2ª edición actualizada



Espainiako Konstituzioaren euskarazko bertsioa eguneratzeko ekimen hau Legeak-Leyes bildumaren eskutik dator, eta helburu nagusi bat du: testu konstituzionalaren erreformak euskaraz ere eskuragarri jartzea. Urteak joan dira Konstituzioaren testua aipatutako bildumaren barruan lehen aldiz argitaratu zenetik eta tartean gertaturiko konstituzio-erreforma biek aitzakia eman digute berriro hari heltzeko.

ISBNa:	978-84-1319-681-7
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2025
Orrialdeak:	188
Formatua:	Papera
Salneurria:	10 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	3 €


27 · Nazioarteko Zuzenbide Pribatua: oinarrizko zenbait arau Derecho Internacional Privado: algunas normas básicas



Ale honetan, irakurleak aurkituko ditu nazioarteko zuzenbide pribatuaren arloan dauden oinarrizko arauen arteko hautatutako erregelamendu batzuk. Erregelamenduak europar zuzenbidean jatorria duten arauak diren heinean, Europar Batasuneko kide diren estatuak ordenamenduen parte dira, eta nazioarteko egoera pribatuaren eragin zuzena dute. Jakina da azkeneko hamarkadetan nazioarteko egoera pribatuak nabarmen ugartu direla, eta, horiekin batera, harreman horietatik sortutako arazo juridikoak ere bai.

ISBNa:	978-84-9082-903-5
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2024
Orrialdeak:	460
Formatua:	Papera
Salneurria:	20 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	6 €


26 · Merkataritza zuzenbidea: aplikazio zabaleko zenbait lege
Derecho mercantil: leyes de aplicación general



Ale honek merkataritza-trafikoan gehien erabiltzen diren arategi batzuk biltzen ditu. Aukeratu diren legeen aplikazio ugaria ez da bakarrik gertatzen enpresa edo beste pertsona juridiko batzuentzat, baizik eta baita pertsona fisikoentzat ere. Izan ere, oso pertsona gutxi ez dute higiezin krediturik edo kontsumorako krediturik eskatu bizitzan zehar, adibidez. Era berean, ale honek merkataritza-banaketaren sektoreko funtsezko bi arau jasotzen ditu, estrategikoa gure egitura ekonomikoan, bai enpresei bai kontsumitzaileei eragiten dietenak.

ISBNa:	978-84-1319-606-0
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2023
Orrialdeak:	732
Formatua:	Papera
Salneurria:	26 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	8 €


25 · Nazioarteko zuzenbideari buruzko oinarritzko testuak (II)
Textos fundamentales de Derecho Internacional (II)



Nazioarteko zuzenbidearen protagonistak ez dira soilik estatuak eta haien gobernuak, edo nazioarteko erakundeak, baita herriak eta herritarrak ere. Estatuaren subiranotasuna ez da soilik izenpetzen dituzten nazioarteko itunen bidez mugatzen, baita nazioarteko zuzenbidearen *ius cogens*, ohitura eta printzipio orokorren bidez ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Nazio Batuen Gutunaren printzipioak barne.

ISBNa:	978-84-1319-439-4
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2022
Orrialdeak:	184
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	4 €


24 · Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legea
Ley del Patrimonio de las Administraciones Públicas



Administrazio publikoen ondareari buruzko 33/2003 Legeak arautzen du, orokorrean eta beste ordenamendu juridiko batzuetan, ondasun publikoen araubide juridikoa izenez ezagutzen dena. Normalean ondasun publikotzat hartzen da Estatuarena edo haren administrazio publikoena dena, edo erromatar Zuzenbidean *res publicat*z edo gauza publikotzat jotzen zenaren zerbitzura dagoena.

ISBNa:	978-84-1319-280-2
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2020
Orrialdeak:	316
Formatua:	Papera
Salneurria:	18 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	4 €


23 · Nazioarteko Zuzenbide Publikoa: oinarrizko testu aukeratuak
Derecho Internacional Público: selección de textos Fundamentales



Legeak-Leyes bildumako 23. ale honek euskara juridikoaren funtsezko eremu bat —Nazioarteko Zuzenbide Publikoa— garatzeko eta finkatzeko ezinbestekoak diren testu batzuk jartzen ditu Zuzenbideko profesional, ikasle eta ikertzaileen eskura, baina baita Zientzia Politikoetan, Kazetaritzan, Nazioarteko Harremanetan eta beste zenbait jakintza-arlotan dihardutenen eskura ere.

ISBNa:	978-84-1319-094-5
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2019
Orrialdeak:	236
Formatua:	Papera
Salneurria:	14 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan


22 · Espainiako auzitegi-tako prokuradoreen estatutu orokorra
Estatuto general de los procuradores de los tribunales de España



Justiziaren Administrazioan parte hartzen duten agente eta operadoreen artean, auzitegi-tako prokuradoreak nabarmentzen dira. Prokuradoreak aritzen dira alderdi prozesaleen izenean auzitegien aurrean, haien eskaerak aurkeztuz beren izenean eta auzitegien ebazpenak jasoz, halaber, beren izenean.

ISBNa:	978-84-9082-954-7
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2018
Orrialdeak:	74
Formatua:	Papera
Salneurria:	10 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan


21 · Espainiako abokatutzaren estatutu orokorra
Estatuto general de la abogacía española



Abokatuarena ogibide juridiko klasikoenetako bat da, bai eta ezagunenetakoa ere, gizartearen sakonki iltzatua dagoena. Abokatu hitza ahoskatu, eta automatikoki defentsa-eskubidea datorkigu burura, sakona eta hautsiezina delako bi kontzeptuen arteko lotura. Zuzenbide-estatu baten ezaugarri nagusietako bat da defentsaeskubidea, herritarrentzat oinarrizko eskubide gisa sortu eta diseinatu izan dena (EKren 24.2 art.)

ISBNa:	978-84-9082-952-3
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2018
Orrialdeak:	182
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

20 · Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra
Ley General de la Comunicación Audiovisual



Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra funtsezko lege bat da gaur egungo informazio-gizartean. Sektore hori arautzeak ikuspuntu askotatik du garrantzia. Parte-hartzaileak eta administrazio eskudunak ere askotarikoak dira. Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Legeak sektore horren bilakaera teknologikoarekin loturiko alderdiei eragiten die, batez ere irrati-telebista analogikoak atzera utzi eta digitaletara jauzi egin denez geroztik.

ISBNa:	978-84-9082-634-8
Urtea:	15 x 21
Tamaina:	2017
Orrialdeak:	182
Formatua:	Papera
Salneurria:	12 €
Formatua:	PDFa
Salneurria:	Doan

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK

**Euskal Herriko Unibertsitateko
Argitalpen Zerbitzua**
Bibliotekako eraikina. 1. solairua
Bizkaiko Campusa (Leioa)
argitaletxea@ehu.eus · 946 012 227
www.ehu.eus/argitalpenak

**UPV/EHUko Euskara Zergitzuak koordinatutako
itzulpenak eta orraztutako sormen-lanak**

